

# Berrigara


BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko apirilaren 12a / 491. zenbakia



**TXAKUR LERAK DOMEKAN GORLAN**

**APATXI, GAZTETXOENDAKO GEHIGARRIA**





*Gustu finendako leku fina.*



**TORREKUA**



**ERRETEGIA**

**Batik bat arraina • Karta • Eguneko menuak • Goizeko 7etatik zabalik**

Ibargarai 37, BERGARA. Tel. 943 76 50 99

## ATREBENTZIAEZPADA/ Ze pentsatzen jatzu jubilatzeke edadia 70 urtera atzeratzia?



**ASCEN JIMÉNEZ**  
41 urte



**MIKEL USABIAGA**  
41 urte



**IRENE ODRIOZOLA**  
74 urte



**NEREA ARANA**  
26 urte



**INAZIO ARANBURU**  
81 urte



**BINGEN MURUAMENDIARAZ**  
40 urte

Ez jat ondo pentsatzen. Zenbat eta lehenago erretiratu, orduan eta hobeto, disfrutatu be egin bihar da-eta. Gaiñera, gaztiendako tokixa be laga bihar da, beste la ze egingo dabe, ba?

Nahiko lan egitten dogu bestela be hirurogeita bost urtera arte. Gaur egun, enpresak iñoiz baino diru gehixago irabazten dabi-zenian, langillia zapalduago dago.

Ez jat ondo pentsatzen. Hirurogeita bost urte be nahikua die. Zaharrei lan gehixago egittia eragin barik, lan egitteko jente gaztia be badagola pentsatzen jat.

Hirurogeita bost urtekin nahikua dala uste dot. Hainbeste urte lanian ibilli eta gero, disfrutatzeko denporia be egon bihar da. Eta gaztiaguei tokixa be laga bihar jakue.

Gaizki pentsatzen jat. Behin hirurogei urte ezkerro, pagau egitten da. Horregatik, hirurogeita bost nahikua diela uste dot. Eta lan astunak dauzkenek gutxia-ego egin biharko leukie.

Ez nago ados. Pertsona batek berrogei urte lan egin dabenian nahikua egin dabela uste dot. Gaur egungo nagusixek nahikua kotizau dabe eta disfrutatzeko aukeria emon bihar jakue.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK LURREKO BALDOSAK, SOLTE** Ibargarai kalean, Semi-narioko patioaren ondoko espaloian baldosak solte ei daude. Horretaz kexatu zaigu, behintzat, irakurle bat. Haren esanetan, baldosa ugari daude solte eta egunotan moduan eguraldia euritsua bada, lurra-ri begira joan beharra izaten du, solte dagoen baldosarik ez zapal-tzeko. Osterantzean, praka baxuak guztiz zipiztintzen ei zaizkio. /M.B.

## ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /7

KIROLAK /10

KULTURA /12

**Xabier Oregi 15 urte kartzelan**

Apirilean 15 urte bete dira *Panti* kartzelan dagoela. Hura omentzeko, ekitaldiak antolatu ditu Etxerateg.

**Txakur leren lasterketa**

Gorlan txakur leren lasterketa jokatu domeka goizean. 40 bat partaide izango dira.

**Asier Altunak 3. film laburra**

Bergararrak *Aharien talka* hirugarren film laburra grabatu berri du Getaria-ko Azkizu auzoan.

## ASTEKO DATUA

# 1.200

**ZAHARREN AGIRIAREN ALDE JASOTAKO SINADURAK**

San Joxepe elkarteak Zaharren Agiriaren aldeko 1.200 sinadura batu zituen Erramu Zapatuan. Madrilen egin berri duten Zahar-tearen Munduko Batzarrean aztergai izan da agiri hori.

## BESTE EKESANA

“Manifestuarekin, edadetuak eskubideak errekonozitzea nahi dugu, azken baten, gure gizartearen

gazteen kultura gailentzen delako eta nagusiak marjinalak izaten hasi garelako. Horrekin batera, edadetuok gizartearen parte hartzeko ditugun aukerak erakutsi nahi ditu manifestuak. Gizartearen parte gabela erakutsi behar dugu. Hirurogei eta laurogei urte artean bizitza tarte zabala dago, eta bakoitzak galdetu behar dio bere buruari ze egin behar duen: Benidormera joan, paseatu eta zerbitzuak kontsumitu... edo hura izan behar den zerbaite eskaini nahi duena. Azken baten, edadetuok gure adinetik eratorritako balioak eskain ditzakegu: esperientzia, bizitzaren jakinduria eta haren zentzua.

**TOMASA ZABALETA**  
El Diario Vasco/02-04-06

## BERAIEK DINDE/ Iñigo Urrutia



*Telezaborraren festa*

**T**elezaborra pil-pilean daukagu azkenaldi honetan, ez bakarrik *Operación Triunfo* arrakastatsua izan delako eta *Gran Hermano* gizavoyeurismo emanaldi berri bat eskaintzen ari direlako. Ez, kontua da telebista itxura distiratsuekin eduki gero eta higuigarriagoak eskaintzeko joera sakontzen ari dela. Demagun, adibide gisa, 'iker-kuntzazko kazetaritza' bezala azaldu zaigun missei buruzko programa.

Arcadi Espada kazetari eta irakasleak esan berri du hor daukagu-la gezur baten adibide argia eta garbia, hain zuzen ere, "iker-tzaileak" ez zutelako errealtatea nabarmendu, baizik eta eraiki. Kazetariaren eginbehar nagusia gertatzen diren gauzak kontatzea da, eta ez fikzioak.

Aldiz, errealtatezkoa da, benetakoa, BBVako jauntxo ohien diru beltzak nondik norako ibilbidea egin duten. Baina kasu hau boteretsuei

dagokie, bere muina (dirua, boterea eta eraginkortasuna) ukitzen du, eta hor, adiskide, ez dago txantxetarako lekurik, are gutxiago kazetari mozorrotuentzat. Hauek 'Estatutu arazoak' dira eta hiritarrok jakin behar duguna seguru aski ezer gutxi izango da, beraz, jakiteko dugun egarria ez digu telebistak aseko.

**“Telebistan, nahiz eta itxura distiratsuekin, eduki gero eta higuigarriagoak eskaintzeko joera dago”**

Eta gainontzeko komunikabideek ez dizkigute askoz gehiago eskainiko, arazoa politizatzen ez bada.

Kasu horretan, gai honen inguruan sor daitekeen

borroka politikoak zulotxo txiki bat emango digu informazioak jasotzeko, nahiz eta gure kontu izan nola diskriminatu egiazko datuak eta faltsukeria hutsak besterik ez direnak.

Bien bitartean, telebistek behin eta berriro itoko gaituzte albiste eta programa nazkagarriekin, farandulazko pertsonaiei eskaintzen horieta-koak.

Negargarria benetan.

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Edu Mendibil

**ERREDAKZIOA**  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar

**MAKETAZIOA**  
Iñaki Iturbe

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrañaga

**KOLABORATZAILEAK**  
Luis Mari Agirre  
Maitane Arizabaleta  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkorobereizbar

**LEGE-GORDAILUA**  
SS-50/91

**ISSN**  
1130-6599

**TIRADA**  
5.900 ale

**Goiena**  
Kommunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Begarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 12**  
MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 15

**ZAPATUA, 13**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74

**DOMEKA, 14**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74

**ASTELEHENA, 15**  
PUY. Barrenkalea 25. .... 943 76 19 63

**MARTITZENA, 16**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05

**EGUAZTENA, 17**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

**EGUENA, 18**  
MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 15

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**  
Anbulatorioa (banda) .... 943 76 24 40  
Bergarako udaltzaingoa .... 943 77 91 06  
Antzuolako udaltzaingoa .... 943 76 62 46  
Ertzaintza .... 943 76 53 40  
Osasun etxea .... 943 76 24 40  
Asepeyo .... 943 76 16 43  
Pakea .... 943 76 13 49  
Angiozarko medikua .... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua .... 943 76 62 23  
Odol emaleak .... 943 76 16 24  
Alkoholiko Anonimoak .... 943 76 51 06

**GARRAIOAK**  
Taxiak. .... 943 76 19 50

**UDALA**  
Bergarako Udaletxea .... 943 77 91 00  
Antzuolako Udaletxea .... 943 76 62 46  
Udal Artxiboa .... 943 77 91 32  
Igerilekuak .... 943 76 20 51  
Kultura etxea. .... 943 77 91 58  
Liburutegia .... 943 77 91 62  
Kiroldegia .... 943 76 56 41  
Mizpirualde egoitza. .... 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**  
Epaitegia .... 943 76 14 92  
Erregistroa .... 943 76 13 15  
Jardun .... 943 76 36 61  
Idolaz .... 943 76 65 08  
Erretiratuen etxea. Bergara. .... 943 76 21 40  
Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71  
Postetxea .... 943 76 26 85  
Bedelkar .... 943 76 04 68  
Akulu AEK. .... 943 76 05 18  
Udal Euskaltegia .... 943 76 44 53  
Bergarako notariotza .... 943 76 10 73

**MEZAK**

**Santa Marina** Domekak: 10:30.  
Domekak: Labegaraieta  
11:30, 13:00. Domekak: 11:00.  
Zapatuak: 19:00. **San Lorentzo**  
Lanegunak: 19:15. Zapatuak:  
**San Pedro** 20:00.  
Domekak: Angiozar  
09:30, 12:30. Domekak:  
Zapatuak eta 11:30.  
lanegunak: 19:00. **Moja**  
**Sierbak** Zaharrak  
Lanegunak: 19:30. Lanegunak: 8:00.  
**Osintxu** Mizpirualde  
Domekak: 12:30. Lanegunak: 11:45.  
Zapatuak: 19:00. Zapatuak: 17:30.  
**Elosu** Antzuola  
Domekak: 10:30. Domekak:  
**Ubera** 09:00, 11:30. Zapatuak eta  
Domekak: 10:30. lanegunak: 19:30.  
**San Juan** Uzarraga  
Domekak: 11:00. Domekak: 10:00.  
**Elorregi**

**URTE-MEZAK**  
**Santa Marina**  
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.  
**San Pedro**  
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

**OHARRAK**

**IMPRECIOKO BAZKIDE OHIEN AFARIA APIRILAREN 20AN**  
Impreci kooperatibako bazkide ohiek afaria egingo dute apirilaren 20an Zabala jatetxean. Izen-ematea Zabalan, Mujika jantzi dendan edo Zubietako Arantxa dendan.

**1964AN JAIOTAKOAK**  
1964an jaiotako bergararren afaria apirilaren 20an Tartufo jatetxean. Izen-ematea (10 euroko depositua) San Martin plazako kioskoan edo 607 410 409 telefonoan (Peli Narbaiza).

**1949AN JAIOTAKOAK**  
1949an jaiotakoen bazkaria apirilaren 27an Tartufo jatetxean. Autobus zerbitzua egongo da. 943 76 35 51.

**XIPIZARO LUDOTEKA**  
Uztaileko udalekuan begirale lanetan ibili nahi dutenek hilaren 20a baino lehen eman beharko dute izena. 943 76 23 76.

**BATASUNAREN ZOZKETA**  
Batasunak Erramu Zapatuan egindako zozketan 3.969 zorbakia mariskada batekin saritua izan da. Boletoa jabeak apirilaren 19ra arte izango du saria jasotzeko aukera, Pol-Polen. Irabazlea agertzen ez bada, presoen senideendako izango da saria.

**JARDUNENAGENDA**

**ZAHARBERRITZE IKASTAROA**  
Apirilaren 22tik maiatzaren 30era. Izena emateko epea apirilaren 17ra arte zabalik. Argibideak: 943 76 08 19.

**ARRATERA IRTEERA**  
Apirilaren 27an eta 28an, Arratera irteera izango da. Izena emateko epea apirilaren 22an bukatuko da. Plaza mugatuak. 27 euro.

**URBANOENORDUTEGIA**

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta / Olabarretetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruillaga (Konde), Zubietta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN**


**Zaldumendiko Donato Iburgurenekin berriketan**

Aintzinako Erramu Zapatuaz berba egiteko Zaldumendiko Donato Iburguren elkarriketatu genuen. Zera adierazi zigun Donatok: "Gerra aurretik feria haundia izaten zen. Tratanteak Asturias eta Santander aldetik etortzen ziren. Egunak ematen zituzten Bergara etortzeko".



**BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru**

*"Pendiza"*



Aldapa handia, zeharo bertikala izan gabe; desnibela bertikala bada, **muga edo muna.**  
-Pendizian eindda dare Plazentziako basarri geixienak.  
*Eztauke solo laurik, dana da pendiza.*

**ASTEKOFILMAK**

**'EL FLORIDO PENSIL'**  
ZUZENDARIA: JUAN JOSE PORTO. AKTO-REAK: DANIEL RUBIO, EL GRAN WYOMING, FERNANDO GUILLEN.

**HARIA.** Antzezlanaren arrakastari eutsi nahirik, Andres Sopenaren nobelan oinarritutako filma. Frankismo garaiko hezkuntza sistema islatzen du filmak, umore garratza nagusi delarik.

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedadesen. Egubakoitzean 22:30ean; zapatuan 22:30ean; domekan 19:30ean eta 22:15ean eta astelehenean 19:30ean.

PUNUAZIOA: ●●●●●

**'E.T.'**  
ZUZENDARIA: STEVEN SPIELBERG. AKTO-REAK: HENRY THOMAS, DEEWALLACE, DREW BARRYMORE.

**HARIA.** Filma estreinatu zenetik hogeitaz bete dira eta oraingo honetarako aldaketa batzuk egin dituzte zintan, eszena berriak txertatuz, eta efektu digital berriak sartuz. Gaztetxoei zein nagusiei zuzendutako filma, askok eta askok gogoan izango dutena.

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedadesen. Zapatuan, 17:00etan eta 19:30ean; domekan, 17:00etan.

PUNUAZIOA: ●●●●●

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Egubakoitza, 5	<b>2°C</b>
<b>MAXIMOA</b> Astelehena, 8	<b>20°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)</b>	<b>45,1 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 3	9°C 6°C 31,4 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 4	12°C 7°C 3,9 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 5	20°C 2°C 4,1 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 6	17°C 9°C 2,3 l/m <sup>2</sup>
Domeka, 7	20°C 5°C - l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 8	20°C 6°C 2,2 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 9	12°C 8°C 1,2 l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**MEMESA**  
INDUSTRI HORNIDURAK  
Tel. 943 71 24 25  
BERGARA

**GOIERRI**  
AUTOGIDARIEN ESKOLA  
Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu  
Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

TURISMOA/ Herriko hotel eta jatetxeen gaineko kontsulta ugari jaso dituzte bulegoan

# Aste Santuan 370 kontsulta jaso dituzte turismo bulegoan iazko kopuruari eutsiz

MONIKA BELASTEGI

Inoiz baino egun gehiago egon da irekita aurten Turismo Bulegoa, 24 egunez hain justu. Tarte horretan 370 kontsulta jaso dituzte, eta horrek iazko turista kopurua mantendu egin dela esan nahi du. Zerbitzuaren arduradunek balorazio positiboa egin dute.

Hirurehun eta hirurogeita hamar dira, hain justu ere, aurtengo Aste Santuan Turismo Bulegoan jaso dituzten kontsulta kopurua. Martxoaren 15etik apirilaren 7ra bitartean egon da zabalik, inoiz baino egun gehiago. Horixe da, hain zuten, Udalaren helburua, eta Xabier Aranburu Turismo Bulegoko arduradunak azaldu duenez, "Udala esfortzu berezia egin ari da bulegoa ahalik eta denbora luzeenez irekita edukitzeko".

Jasotako 370 kontsulta horietatik, 81 Bergara bertako biztanleek egin dituzte, eta 289 kanpotik etorritako turistek.

## GEHIENAK EUSKALDUNAK

Kanpotik etorritako bisitari horien artean, gehienak Euskal Herriko hainbat tokitatik etorritakoak izan dira, 180 hain zuzen ere. Bestetik, Espainiatik etorritakoen 86 kontsulta jaso dira, horien artean, urtero bezala, kataluniarrak izan dira nagusi, eta madrildarrak ere ugari hurbildu dira.

Europako beste herrialde batzuetatik etorritakoen kasuan, bederatzi kontsulta jaso dituzte Turismo Bulegoan: lau frantsesek egindakoak, hiru ingelesek, poloniar batek eta Suitzako beste batek. Azkenik, Ameriketatik etorritakoen zazpi kontsulta jaso dituzte, horietatik lau



ARTXIBOA

Zortzi bisita gidatu baino ez dituzte eskatu turistek; gehienak udaletxea ikusteko, gainera.

*370 kontsultetatik 81 bergararrek egin dituzte eta 289 kanpotik etorritako turistek*

Argentinatik etorritako turistek egindakoak.

Gidatutako bisitei dagokienez, inoiz baino eskari gutxiago jaso da aurtengo Aste Santuan.

*Inoiz baino bisita gidatu gutxiago egin dira aurtengo Aste Santuan; zortzi, hain justu ere*

Zortzi besterik ez dira egin eta gehienak udaletxea ikusteko.

Horrez gain, bisitari gehien Aste Santuko egunetan hurbildu da. Pazko asteen jende gutxiago

*Udari begira, ekainaren lehenengotik iraila amaiera arte egongo da zabalik bulegoa*

inguratu da herrira, hala ere, Xabier Aranburu Turismo Bulegoko arduradunak jasotako emaitzen balorazio positiboa egin du. Iazko datuekin alderatuz gero,

emaitzak nahiko parekatuak izan direla gehitu du Aranburuk. Iaz 328 kontsulta jaso zituzten, baina kontuan hartu behar da 17 egunetan baino ez zela bulegoa zabalik egon. Herrira hurbiltzen diren turista horiek bertan lo eta jaten duten jakiteko daturik ez badago ere, turismo bulegoan bertako hotel eta jatetxeen gaineko kontsulta ugari jaso dituztela adierazi du Aranburuk.

Udarako denboraldira begira, ekainaren lehenengotik iraila amaiera arte egongo da zabalik.

## Egutegia eskatzeko bildu dira Aceralian

Bergara eta Olaberriako Aceraliako LABeko ordezkariak kontzentrazioa egin zuten martitzenean, Bergaran, lantegiko bulegoan aurrean. 11:00etan kontzentratu ziren; aurrez, baina, Olaberriako lantegi aurrean ere egin zuten elkarretaraztea.

Protestaldiaren arrazoi nagusia lan egutegia izan zen. LAB sindikatuko ordezkarien esanetan, zuzendaritzak oraindik ez die aurtengo lan egutegi osoa eman, eta urtetik urtera errepikatzen dabilen egoera da hori. Zuzendaritzarekin bilera ugari eduki arren, maiatzera arteko egutegia

baino ez dute. Ondorioz, udako oporraldia noiz edukiko duten ez dakite, eta horrek guztiz baldintzatzen die familiakoekin oporrak antolatzeko aukera.

### ZUZENDARITZAREN JARRERA

Zuzendaritzari lan egutegia eskatzear gain, haren prepotentzia eta langileekiko inkomunikazioa ere salatu zuten LABeko ordezkariak. "Hainbat gairen gaineko erantzunaren zain gaude: 2002ko komenioa, 2001eko hiruhileko txostena... Agintean dagoena ez bada denera heltzen beste batzuen esku utz ditzala ardura batzuk".



Bergara eta Olaberriako Aceraliako LABeko sail sindikalak bulegoan aurrean elkarretaratu ziren.

MONIKA BELASTEGI

**ERREPIDEAK/** Diputazioak milioi bat euro inguru inbertituko ditu baserria birgaitzeko eta eraberritzeko

# A1-eko tunelen zaintzarako etxe eta erakusketa areto bihurtuko dute Ondartza

MONIKA BELASTEGI


Ondartza baserria birgaitzeko eta eraberritzeko aurrekontua onartu du Foru Aldundiak: milioi bat euro inguru, hain justu. Batetik, Eibar-Gasteiz autobideko hainbat tunelen zaintzarako etxea jarriko dute han; bestetik, autobideko lanen gaineko erakusketa.

Diputatuen Kontseiluak 992.201 euroko inbertsioa onartu du Ondartza baserria birgaitu eta eraberritzeko.

Ondartza baserria Eibar-Gasteiz autobideko lotuneetako baten alboan dago. Bota beharrez, baina, eraberritzea eta beste erabilera bat ematea erabaki du Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuak. Eusko Jaurlaritzak interes arkeologikoko gune moduan izendatuta dauka; izan ere, gaur egun itxuraldatuta dagoen arren, oraindik XVI. mende-ko elementuak kontserbatzen ditu. Horrez gainera, desagertutako San Adrian de Ondartza ermita baserriari lotuta zegoen eta horrek areagotu egiten du baserriaren garrantzia. Gainera, Bergaran historiko den Ondartza jauregiko familiaren sorburu ere bada baserria. Horrekin guztia-ekin, baserria guztiz eraberritu eta beste erabilera bat ematea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuak.

## ERABILERA BIKOITZA EMANGO DIOTE BASERRIARI

Mila metro koadroko azalerarekin, Ondartza baserriak erabile-  
ra bikoitza izango du: alde bate-  
tik, autobideko tunelen zaintza-  
rako etxea jarriko dute hantxe,  
tunelen funtzionamendu egokia  
ziurtatzeko asmoz. Horrez gai-



Autobideko lotuneetako bat Ondartza baserriaren alboan dago.

*Baserrian tunelen  
zaintzarako zentroa  
eta autobideko  
zainketarako gela  
egongo dira*

nera, autobideko segurtasunera-  
ko eta zaintzarako materiala gor-  
detzeko biltegia, batzarrak egi-  
teko gela bat eta artxiboa ere  
izango ditu.

Bestetik, autobideko lanak  
zelan egin dituzten azaltzeko, era-

*Autobideko lanak  
zelan egin dituzten  
azaltzeko erakusketa  
egonkorra egongo da  
baserrian*

kusketa bat ere jarriko dute  
Ondartzan. Erakusketa hori egon-  
korra izango da, eta aurrez eska-  
tutako bisitak egingo dira. Beste  
gauza batzuen artean autobideko  
azpiegituraren maketa bat egon-  
go da, baita behin-behineko era-

kusketak jasoko dituen erabile-  
ra askotariko beste gela bat ere.

Lan horiek guztiek ia milioi  
bat euroko aurrekontua izango  
dute, eta oraindik ez dituzte obrak  
adjudikatu. Proiektua, bestalde,  
ur&ma SA enpresak egin du.

Eibar-Gasteiz autobideko  
lehenengo zatia, hau da, Eibar eta  
Bergara lotzen dituen, aurtengo  
urte amaiera aldera edo dato-  
rren urteko hasieran irekiko dute  
ibilgailuendako. Bergara eta  
Arrasate arteko zatia, berriz, 2003.  
urterako bukatu eta ibilgailuen-  
dako irekitzea aurrez ikusten du  
Gipuzkoako Foru Aldundiko  
Garraio eta Errepide Departame-  
ntuak.

## LABUR

### Herriko hainbat kaleren asfaltatzea esleitu du Udalak

Bergarako Udaleko Gobernu-  
batzordeak herriko hainbat  
kale asfaltatzeko lanak eslei-  
tu berri ditu. Honako kale  
hauek, hain zuzen ere: Ola  
auzoan dagoen autobus gel-  
tokia, Algodonera deritzon  
tunelera iristeko oinezkoen  
gunea, Irizar jauregiko lora-  
tegien arteko bidetxoak, eta  
Ramon Maria Lili kaleko  
barruko aldea. Lan horiek  
guztiak Asfaltos Urreritu SA  
enpresari esleitu dizkio Ber-  
garako Udalak, 38.409 eurotan  
(sei milioi eta erdi pezeta).

### Gipuzkoako Bazkudearen saria jaso du Bedelkarrek

Bedelkar merkatarien elkar-  
teari saria eman dio Gipuz-  
koako Bazkudeak. Hain jus-  
tu ere, merkataritzak jardue-  
rari emandako bultzadagatik  
jaso du saria Bedelkar elkar-  
teak. Martxoaren 8an egin  
zuten sari banaketa ekitaldia  
Donostiako Maria Cristina  
hotelean, eta Fermin Mendi-  
zabal presidentearen eskutik  
jaso zuten saria Bedelkar  
elkartetik Donsotiara hurbil-  
du ziren ordezkariak.

Gipuzkoako Bazkudeak  
urtero ematen ditu sari  
horiek, eta horien bidez mer-  
kataritzak jarduera bultzat-  
zen duten erakunde publi-  
ko nahiz pribatuak saritu  
nahi izaten ditu.

Bedelkar 1993. urtean sor-  
tu zuten, merkataritzak jar-  
duerak bultzatzeko eta herria  
indartzeko asmoz. Gaur egun,  
112 bazkide batzen ditu mer-  
katarien elkarteak, dendari,  
merkatari eta tabernarien  
arte.

## Udal Euskaltegia, orain Interneten

M.B.

Bergarako Udal Euskaltegiaren  
berri Interneten jaso ahal izango  
dugu aurrerantzean. Izan ere,  
Bizkaiko, Gipuzkoako eta Ara-  
bako berrogei Udal Euskaltegiak  
pil-pilean dagoen Internet arloan  
sartzeko apustua egin dute.

Udal Euskaltegiak [www.udal-euskaltegiak.net](http://www.udal-euskaltegiak.net) webgunean dau-  
de. Euskaltegien gaineko infor-  
mazioa kontsulta daiteke: beste-  
ak beste euskaltegi bakoitza non  
dagoen, zer egiten duten eta publi-  
zitate kanpainaren iragarkiak.

Udal euskaltegiak unibertso

berri baten bila hurreratu dira  
Internetera, eta ikasturte hone-  
tan abian jarritako komunikazio  
kanpainaren barruan eman duten  
beste urrats bat da. Euren esan-  
etan, "euskararendako lanean  
ari garenondako apustua izan da  
Interneten sartzea, eta webgune  
euskaraz eta euskararendako  
sortu dugu, euskara unibertso-  
tsala izan daitekeelako".

Era berean, adierazi dute aro  
berrietan hainbat ikasketa eta  
komunikazio tresna erabili eta  
sortzearen aldekoak ere badire-  
la, komunikazioa delako giza-  
kiok elkar ulertzeko bidea.

CASTELLANO

ZER DA? METODOLOGIA ESKAINTZA SAREA KANPAINA

Hemen zaude: [Udal Euskaltegiak](#) > [Sarea](#) > Bergara

### BERGARAKO Udal Euskaltegia

**UDAL  
EUSKALTEGIAK**

Zabalotegi, 13  
20570 BERGARA

Tel./Faxa: 943 76 44 53

[berg.eusk@udal.gipuzkoa.net](mailto:berg.eusk@udal.gipuzkoa.net)  
[berg.euskudal@euskalnet.net](mailto:berg.euskudal@euskalnet.net)

Udal euskaltegien webgunean Bergarako euskaltegiak ere badu bere tokia, irudian ikus daitekeen moduan.

**PRESOAK**/ Haren omenez hainbat ekitaldi antolatu ditu Etxerat taldeak datozen bi asteburuetarako

# Xabier Oregi 'Panti' espetxean dagoela hamabost urte bete dira apirilean

MONIKA BELASTEGI

Apirilaren 6an bete zituen *Panti*-k 15 urte espetxean. Zigorren hiru laurdenak beteta dituen arren, kartzelan dago oraindik, Murtzian. Bergarako Etxerat taldeak haren omenezko hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen bi asteburuetarako.

Xabier Oregi 1987. urtean sartu zuten espetxean, Frantziatik estraditatu zutenean, baina ordu-rako bost urte zeramatzan Bergaratik kanpo, Iparraldean errefuxiatuta.

Estraditatu zutenetik hona, bederatzi espetxetan egon da, besteak beste, Carabanchel-en, Salto del Negron eta El Acebuchen (Almeria). Duela zazpi urte ezkerro, Murtziako kartzelan dago, Bergaratik 800 kilometrorra. Beste gauza batzuen artean, hori salatu zuen, hain justu, haren arreba Mari Jose Oregik astelehenean Etxerat taldeko kideekin batera eginiko prentsaurrekoan.

Arrebaren esanetan, sakabanaketa oso gogorra da presoendako, baina baita haren senitatekoendako ere: "Gehitutako zigorra da. Murtziara 800 kilometro daude eta hara joateak asteburu osoa eskatzeaz gainera, gastu ekonomiko handia ere bada. Bestalde, errepidean ibiltzeak dakarren arriskua ere gehitu behar zaio horri guztiorri. Murtziara-



Mari Jose Oregi -Panti-ren arreba- eta Etxerat taldeko hainbat kide asteleheneko prentsaurrekoan.

ko autobusik ez dagoenez, autoz egin behar izaten dugu bidaia, eta zazpi bat ordu behar izaten ditugu Murtziako kartzelara heltzeko. Kostuari dagokionez, berriz, bidaia 300 euro behar izaten ditugu".

Hamabost urte espetxean egonda, *Panti*-k zigorren hiru laurdenak beteta dituela azaldu zuen Mari Josek, baina beste preso batzuekin bezala, haren esku-bideak ere ez direla errespetatzen.

## HAINBAT EKITALDI XABIER OREGIREN OMENEZ

Begarako Etxerat taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu Oregiren omenez. Gaur, egubakoitza, 20:00etan, elkarretaratzea egongo da San Martin plazan *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean, eta 22:30ean, autobusa irtengo da Murtziarantz; hantxe, kale bilkura egingo dute kartzelaren aurrean. Autobuserako izena Pol-Pol eta Arrano tabernetan eman daiteke.

Apirilaren 19an, egubakoitzean, giza-katea eta omenaldia egingo diote Oregiri San Martin plazan, 20:00etan, eta 22:30ean, Benito Lertxundik emanaldia egingo du Udal Pilotalekuan. Sarrerak Pol-Pol, Arrano, Ariznoa, Avenida, Kortazar, Txurirgo eta Etxeparen daude salgai.

Azkenik, hilaren 21ean, domekan, mendi ibilaldia egingo dute, goizeko bederatzietan, eta gero, baba-jana, Gorlan.

*Apirilaren 6an, 15 urte egin zituen 'Panti'-k espetxean, nahiz eta zigorren 3/4ak beteta dituen*

*Sakabanaketa gehitutako zigorra dela salatu du haren arreba, Mari Jose Oregik*

*Etxerat taldeak Xabier Oregiren omenezko hainbat ekitaldi antolatu ditu*

**etxalar**

kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
BERGARA  
943 76 50 68

**ARANE**  
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel. 943 76 74 09  
670 483 903

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

**Dixula**

BOKATAK  
DAUZKAGU

Barrenkalea 32  
BERGARA  
Tf. 943 76 44 95



**IRRINTZI**  
kafetegia

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26

**MIZPILDI**



**OKINDEGIA**

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

## Jaunartze eta ezkontzetarako...

- **Citizen erlojuak, 3 urteko bermearekin**  
Deskontuak irekitze-kanpainarengatik  
Inizialen grabatuak doan
- **Urrea 18 kilatekoa**  
%20ko deskontuak  
Grabatuak doan

**telkar**

Ibargarai 2  
943 76 27 11

Erlojuen eta urrezko eta zilarrezko bitxien konponketa



## GURUTZEAK LAGUN

**H**orrelaxe pasatzen dugu urtea herritar askok. Izan ere, Aste Santua iristear dagoela, urtero egiten digu bisita Gotzon Barrenetxea-Arandok; BERRIGARAko denoi gurutze bana ekartzen digu. Aurten 2.500 gurutze egin ditu, zazpi tamaina desberdinekoak: txikiak zentimetro eta erdi ingurukoak dira, eta handiak, berriz, hiru bat metrokoak. Herritar askori ematen die gurutzeak: tabernariei, mojei, apaizei, gotzainari, guri ere bai, esan bezala, eta aurten karteletara ere bidaliko ditu, halaxe eskatu diote-eta.



## UDABERRIKO ERREZETAK

**A**pirilaren 2an hasi zuten sukaldaritza ikastaroa Pertxa elkarteak, eta apirilaren 25ean edukiko dute azken saioa. Bi orduko zortzi saio edukiko dituzte guztira. Guk joan zen martitzen arratsaldean harrapatu genituen Pertxako sukaldean. Elkarteak sartu orduko, ikasle mordoak ikusi genituen, adi-adi, irakaslearen esanak entzuten. Hogei bat lagun dabilta ikastaroan, eta gehientsuenak emakumezkoak diren arren, gizonezko dezente ere badabilta udaberriko platerak zela prestatu ikasten. Ez dute, ez, nolana irakaslea: Oñatiko Zelai-Zabal jatetxeko Maider Betelu sukaldaria, hain zuzen ere. Eta bera bakarrik zebilen, gainera, sukaldean. Ez pentsa ikasleak lapiko eta zartagin artean ari zirenik. Hauek sukalde inguruan jarri, papera eta boligrafoa eskuan zituztela, eta zintzo-zintzo apunteak hartzen zebiltzan. Etxean jarriko dituzte praktikan han ikasitakoak!



## ARITZETA ALMERIAN ETA MURTZIAN

**B**aina bidaiatzera joan dira, hori bai. Almerian eta Murtzian aritu dira Aste Santuan Aritzeta abesbatzakoak, eta bi kontzertu eskaini dituzte han. Martxoaren 30ean Murtziako Águilas herrian eman zuten kontzertua, Paco Rabal izeneko kultura zentroan, hain zuzen ere. Handik Almeria aldera abiatu ziren; Cuevas de Almanzora herrian eskaini zuten kontzertua martxoaren 31n. Elizan eman zuten kontzertua, eta hango telebista autonomikokoak ere hantxe izan ziren kontzertua grabatzen. Bide batez, zela ez, inguruak ezagutzeko aprobetxatu zuten bidaiak. Eta Bergarako oroigarriak ere eraman zituzten: errelleno eta tostoiak, hain justu.

## OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



San Pedro 21  
BERGARA  
943 76 20 49

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

BERGARAN  
BULEGO BERRIA



BERGARA  
Ibargarai 3.  
943 76 97 97

LEGAZPI  
Santikutz 8.  
943 73 05 25

10 URTEKO  
ESPERIENTZIA!





BERGARARRAK MUNDUAN

KEPA MENDIBIL

26 URTE / UNIBERTSITATEKO LANGILEA / GLASGOW

**“Familiaren, lagunena eta Pol-Poleko kafe orduen hutsunea nabari dut”**

AINTZANE IRIZAR

Oraingo delako lau urte eta erdi joan zen Kepa Eskoziara. Ingeniari-tza ikasketak bukatuta, atzerrira joateko gogoazuen: “Gizarte, kultura, hizkuntza eta unibertsitate baten aurrean nire buruak zela erreakzionatuko zuen ikusi nahi nuen, eta bide batez, ikasketekin jarraitu eta beste hizkuntza bat ondo ikasi”.

Oso gustura dago Kepa Eskozian: “Orain arteko oso esperientzia ona izan da”. Zera gaineratu digu: “Eskoziarrak oso jatorrak eta irekiak dira; neurri handi baten, Eskozian denboraldi luzeagoan gertatzen erabakia hartu baldin badut, jendeak egindako harre-ra onarengatik izan da”.

Unibertsitateko Ekoizpen eta Gestio Departamentuan dabil lanean azken bi urteetan. Enpresetako talde-lanaren gaineko ikerketa egiten dabil.

Hango bizimodura zelan moldatu den galdetuta, zera erantzun digu: “Babarrunak eguerdian jan beharrean, gauean jatea ez da, bada, horrenbesteko arazoa izango, ezta? Edota zapatu gaueko txikiteoaren eta pub bateko mahai baten eserita pinta pare bat edatearen artean ez da, bada, horrelako ezberdintasunik izango, ezta?”, diosku Kepak.

Urtean bizpahiru aldiz etortzen da Bergarara



Kepa. Eta bergararren bisitak ere izaten ditu; lagunena eta senitartekoena: “Oso gustura hartzen dira bisitak, batez ere, motxilan urdaiazpikoa eta sagardo botila hartuta datozenen bisitak”.

Glasgow hirian gustura dagoen arren, gauza dezente-

*“Eskoziarrak jatorrak eta irekiak dira, eta oso ondo hartu naute”*

ren falta nabari du: “Lagunena, familiarena, amak prestatutako txipiroiena, Pol-Poleko kafe orduena, gauza dezente- ren hutsunea nabari dut, baina hori gauza ona da”.

Horregatik-edo, hango lanarekin amaitutakoan, Euskal Herrira bueltatzeko asmoa dauka Kepak.

MINGAINARITIRAKA



Amaia Beitia

KOROSTI INMOBILIARIAKUA

lazko irailian zabaldu zeben Korosti inbiliarixia; Amaia Beitia da bertako arduraduna. Jaiotzez Mondragoeko Garagartza auzokua dan arren, urte asko daroia Bergaran bizi izaten.

Zenbat etxebizitza daukazue momentu honetan saltzeko?

Ba, oso gutxi; izan be, ez dago etxebizitza askorik salgai herrixan, eta saltzeko jartzen dienian, segittuan saltzen die.

Eta errentan emoteko?

Saltzeko baiño gutxiago; oso zailla da momentu honetan errentan hartzeko etxe bat topatzia.

Etxe bat erosi nahi baldin badot, ze hartu bihar dot kontuan?

Etxiak ze argitasun daukan, nun dagon kokatuta, nora begira...; azken baten, gero aldatu ezingo dozuna.

Saltzeko daukazuen etxe merkienak zenbat balio dau?

114.000 euro.

Eta garestixenak?

168.000 euro.

Zure lanian ze da gehixen gustatzen jatzuna?

Jentiarekin harremanetan egotia asko gustatzen jat.

Eta gutxien?

Ordenadoriak lan egin biharra.

Aldatzekotan, zertan lan egin nahi ziñuke?

Beti lan egin izan dot salmentaren arluan, eta oraingo lanarekin oso gustora nago.

Asteburu baterako plan ideala?

Momentu honetan, sofa neretako bakarririk hartu eta hantxe egon.

Zela definiduko ziñuke zeure burua?

Oso pertsona optimistia naiz; danari bere alde ona ikusten saiatzen naiz.

Amets bat?

Oso berozalia naiz, eta Karibe aldera jungo nintzake oso gustora.

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Arantzazu Agirre

KUBA / 2001eko abuztuaren

Latinoamerikako herrialde bat bisitatu nahi genuen mutil-lagunak eta biok, hango jendea ezagutzeko, batez ere. Beste bidaia baten ezagutzeko lagun batek esan zigun Kuban senitartekoak zituela, ez zituela ezagutzen eta hara joateko gogoz zegoela. Horrelaxe, animatu eta lau lagun joan ginen Kubara.

Habanara iritsi ginen lehenengo. Kuban egondako

lagun batek Habanan ezagutzen zuen familia baten helbidea eman zigun eta haraxe joan ginen. Bizpahiru egun egin genituen Habanan. Malekoia da, nire ustez, Habanako toki bereziarena eta ikusgarriena. Hiriaren bihotza dela esango nuke; zoragarria da, bizitasun handia dago Malekoian. Habana Zaharra ere ikustekoa da; hiriaren alde zaharra da, eta ez dagoen arren oso egoera onean, merezi du ikustea. Bestetik, azpimarratzekoa da jendearen eskuzabaltasuna, alaitasuna eta jatorrasuna ere; oso bihotz oneko jendea da. Automobil bat alokatu genuen Habanan; han geundela, Baraderora joan ginen; niri, egia esatearren, ez zidan ezer esan toki hark. Gainera, hondartza askotan ezin dira kubatarrak sartu eta hori oso gogorra egiten da. Habanatik Trinidadera abiatu ginen. Bidean hainbat arazo izan genituen automobilarekin eta eguraldiarekin, baina abenturaxo haren ostean, Trinidadera iritsi ginen. Turismo gehiegi dago han, nire gusturako. Handik Ciego de Avila probintziara joan ginen; Cayococon egon ginen. Cayo Guillermon ere egon ginen, eta Pilar hondartza ikusi genuen, kostaldeko toki ederrena, nire ustez. Bidaia gomendagarria da; edozelan ere, gure lehen-tasuna jendea ezagutzea eta euren bizimodua gertutik bizi izatea zen, eta horixe bera izan zen, duda barik, bidaia hartako interesgarriena.



*“Ikusgarriak dira Cayo Guillermo eta hango Pilar hondartza”*

*“Gauza politena kubatarrak ezagutzea izan zen”*

AINTZANE IRIZAR



Horrelako egoera bitxiak ohikoak dira Kuban.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

TXAKUR LERAK

# Gorlako txakur-leren lasterketan berrogei partaide inguru izango dira domekan

Antolatzaileen arabera orain arteko partaidetzarik onena izango da aurtengo edizioan, probak lortu duen prestigioaren adierazle

EDU MENDIBIL

**Bergara Mushing taldeak antolatuta, txakur-leren lasterketa egingo da domekan Gorlan, 11:00etatik aurrera. Aurtengoa bederatzigarren ekitaldia izango da eta antolatzaileek partaidetza bikaina lortu dute.**

Besteak beste, Josep Domingo (aurten Pirena proba ospetsuan 3. postua eskuratu duena) eta Santi Campos (txakur-leren lasterketan aitzindarietako bat) katalanak izango dira domekan Gorlan. Beraiekin batera Roberto Pro ermuarra, iazko irabazlea, edo Jesus Reigoso "Lobito" naparrak (duela bi urteko edizioa) eskuratu zuena) izango dira Bergaran. Axen Garitano bergararrak ere domekako proban parte hartuko du ziurrenik. Guztira, 40 partaide inguru izango dira lehian eta 200 bat txakur bilduko dira Gorlako zelaietan.

Julen Narbaiza Bergara Mushing taldeko ordezkararen ara-

bera, "orain arteko partaidetzarik onena lortu dugu aurten. Gorlako probak prestigioa du eta lurrean egiten den Estatuko probarik onenetakoa da, zalantzarik gabe".

## ERLOJUJUZ KONTRA

Ohikoa denez, lasterketa erlojujuz kontra egingo da. Partaideek Gorlako kantinatik Trekutzera joan-etorria egin beharko dute, 9 kilometro guztira. Txakur kopurua- ren arabera, hainbat kategoriatan bereiztuko dira: pulka izenekoa (txakur bat edo bi erabiliko dituztenak), C maila (2-4 txakur), B maila (4-6 txakurrek tiratutako lerekin arituko direnak), A maila (6 txakurretik gora dituztenak), eta azkenik, *cani-cross* izenekoa, txakurren atzetik korrika egiten dutenei zuzenduta. Nordikoak nagusi izango diren arren, arraza guztietako txakurrak onartuko dira proban.

Era berean, hegazti harrapariak izango dira kantina inguruan eta gaztetxoendako gauza ugari prestatu dute antolatzaileek.



Partaideek 9 kilometroko ibilbidea egin beharko dute domekako proban.


HILARIO AZKARGOZA

## Bergara Hiria pilota txapelketaren VII.ekitaldia hasiko da martitzenean

E.M.

Martitzenean, hilak 16, Bergara Hiria pilota txapelketaren VII. ekitaldia abian jarriko da. Promesen mailan zortzi bikote jardungo dute lehian eta lehen mailakoan punta-puntako hamar bikote arituko dira.

Martitzenean, 19:30etik aurrera, nagusien mailako bi kanporaketa jokatu dira Udal Pilotalekuan. Aranzetak eta Bengoetxeak Errasti anaien aurka jokatu dute eta Muguruzak eta Arrietak Erroizenea eta Oteizaren aurka. Irabazten dutenak final laurdenetarako sailkatuko dira. Bergarako pilotariei dagokienez, Igor Gutiérrezek Eguzkiza zornotzarrarekin osatuko du bikotea eta Ander Muguruza, berriz, Argote zarautzarrarekin batera arituko da. Gutiérrezek apirilaren 23an jokatu du lehen



Bergara Hiria txapelketako finalak ekainaren 18an jokatu dira.

ARTXIBOA

kanporaketa eta Muguruzak maiatzaren 7an edukiko du final laurdenetako kanporaketa.

Promesen mailan, Iker Azagirre bergararrak Errarte esko-

riatzarrarekin osatuko du bikotea. Apirilaren 30ean izango dute lehen kanporaketa. Ekainaren 18ra bitartean martitzeneko izango dira partidua.

## Igeri elkartearen kanpaina 50 metroko igerilekuaren alde

E.M.

**Bergara Igeri Elkarteak aurrera darrai 50 metroko piszina olimpikoa mantentzeko kanpainarekin. Aste Santu aurretik martxan jarritako firma bilketa datorren apirilaren 20ra arte luzatuko da.**

Igeri elkarteak martxoaren 9an ekin zion sinadura batzeari, 50 metroko igerilekua ez kentzeko. Izan ere, Udalak Agorrosingo kirolgunerako landutako aurreproiektuan estali gabeko 50 metroko igerileku olimpikoa kentzea aurreikusten da. Igeri elkarteak hasieratik azaldu du bere desadostasuna eta bere protesta kaleratzea erabaki zuen. Igeri elkarteari bere atxikimendua adierazi nahi diotenek herriko tabernetan dauzkate sinadura orriak. Igeri elkartearen ordezkariek pozik dira orain arte jasotako erantzunarekin, eta dei bere-

zia egiten die herritarrei eta batez ere igerilekuetako erabiltzaileei kanpainen parte hartzeko.

### AZKEN DEIA

Carlos Fernández Igeri elkarte-ko idazkariaren arabera, "zenbat eta sinadura gehiago batu, aukera handiagoa izango dugu udalarekin esku artean duen proiektua berplanteatzeko. Gure elkarteak ahal duen guztia egingo du 50 metroko igerilekua mantentzeko, baina herritarren laguntza ezinbestekoa da. Udalak ez du aurreproiektua publiko egin herritarren artean, eta guk ere ez dakigu noiz daukaten obrekin hasteko asmoa. Dena den, herritarren babesarekin, igerilekua ez kentzeko indarra egin dezakegu. Hori dela eta, azken deia egin nahi diegu aurreproiektuaren kontra dauden guztiei". Esan bezala, firmak apirilaren 20ra arte batuko dira herriko zenbait tabernetan.

**Babeslea**

**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

## LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

### EMAITZAK

#### KOPA TXAPELKETA

Ortzi-Eri	3-3
Dedo Pafarru-Artekale pizzeria	3-0
Komando Piperrak-Argandolas	0-5
Irubide-A Ze Flaxa	1-13

#### LIGAKO 'PLAY-OFF'-AK

Errotagain-Bar Canalejas	4-6
Bar Bedarreta-Bar Ugarte	2-3
Pagomendi-Artusamak	2-6
Mongatxurak-Bayer	3-3

### PARTIDUAK

#### ZAPATUAN, BARRUAN

12:15: Mongatxurak-Aterpe. Antolaketa

#### DOMEKAN, BARRUAN

11:00: Eri-Bar Canalejas. Argandolas

12:00: Bayer-Argandolas. Antolaketa

16:00: Artusamak-THT. Antolaketa

### ARGI IBILI!

#### LIGAKO TXAPELKETA AZKEN TXANPAN DAGOENAKO

Bayer eta Argandolas taldeen arteko partiduko irabazlea ligako finalurrekotarako sailkatuko da. Finalerdietan Artusamak taldea zai izango du irabazleak. Beste finalerdian Bar Ugarte eta Bar Canalejas taldeek neurtuko dituzte indarrak. Canalejasek Errotagain iazko txapeliduna kanporatu zuen azken jardunaldian, 6 eta 4.

### SAILKAPENA

#### A MULTZOA

	P	J
1. Mongatxurak	46	19
2. A Ze Flaxa	46	19
3. Bar Ugarte	41	19
4. Eri	31	19
5. Komando Piperrak	26	19
6. Kanpazar	21	19
7. Bar Ganbara	13	19
8. Amilotx	8	19
9. Biciprecisión Igartua	8	19
10. Agirrebeña	0	19
11. Torrekua	0	0

#### B MULTZOA

	P	J
1. Bar Bedarreta	52	18
2. Bar Canalejas	38	18
3. Amoskibar	27	18
4. Aterpe	27	18
5. Txipiron	26	18
6. Vacalouras	25	18
7. THT	20	18
8. Irubide	19	18
9. Artekale pizzeria	15	18
10. Etengabe	0	18

#### C MULTZOA

	P	J
1. Errotagain	46	16
2. Artusamak	35	16
3. Bayer	26	16
4. Argandolas	25	16
5. Dedo Pafarru	25	16
6. Pagomendi	25	16
7. Ortzi	13	16
8. Patxaran Team	7	16
9. Timofonika	6	16
10. Bildurbarek	0	0

## GAINBEGIRATUA

### FRONTENIS

#### Frontenis txapelketa Angiozarko Arbiaska pilotalekuan maiatzaren 4tik aurrera

Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatutako frontenis txapelketa jokatuko da Angiozarko Arbiaska pilotalekuan maiatzaren 4tik aurrera. Txapelketa binaka jokatuko da. Izena emateko epea apirilaren 30era arte egongo da zabalik. Argibideak 943 77 91 67 zenbakian.

### TENIS

#### Ander Oñaederra elgoibartarrak irabazi zuen Bergarako tenis txapelketa

Ander Oñaederra elgoibartarra Jose Caballero arrasatearrari nagusitu zitzaion Bergarako tenis txapelketako finalean, zapatuan, Kiroldegian. Eneko Ugalde bergararrak hirugarren postua eskuratu zuen eta Jose Luis Moreno oñatiarra sailkatu zen laugarren.

### PILOTA

#### Ander Muguruzak eta Igor Gutiérrezrek Debarroko txapelketako finala irabazi zuten

Ander Muguruzak eta Igor Gutiérrezrek 22 eta 13 irabazi zieten Aretxabaletako Errasti anaiei domekan Bergaran, Debarroko txapelketako senior mailako finalean. Iker Azágirre bergararrak galdu egin zuen gazte mailako finala Elgetako taldea ordezkatzeko zuela.

### FUTBOLA

#### Bergara-Beti Ona preferente mailako futbol partidua zapatuan Agorrosinen

Bergarako preferente mailako futbol taldeak Beti Ona taldea hartuko du zapatuan Agorrosinen. Partidua 16.30ean hasiko da. Azken jardunaldian mahoneroek 2 eta 0 galdu zuten Aloña Mendi taldearen aurka, Azkoagainen. Bergararrak sailkapeneko 7. lekuan daude.]

## JOKATZEKOAK

### FUTBOLA

Bergara-Behobia

Infantilak. Zapatua. 12:00. Ipintza.

Bergara-Beti Ona

Preferentea. Zapatua. 16:30. Agorrosin.

Bergara-Aurrera Ondarroa

Lehen mailako gazteak. Zapatua. 18:30. Ipintza.

Bergara-Urki

Bigarren mailako kadeteak. Domeka. 10:30. Ipintza.

Bergara-Zarautz

Neskak. Domeka. 12:00. Ipintza.

### ESKUBALOIA

Bergara-Pulpo

Kadete mutilak. Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

Bergara-Muskiz

Senior mutilak. Zapatua. 18:00. Kiroldegia

### SASKIBALOIA

Bergara-Irargi

Gazte mutilak. Zapatua. 16:00. Maria Lagundia.

### PILOTA

Aranzeta-Bengoetxea/Errasti anaia (nagusiak)

Muguruza-Arrieta/Errozenea-Oteiza (nagusiak)

Bergara Hiria Txapelketa

Martitzena. 19:30.

Udal Pilotalekua.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Aloña Mendi 2 Bergara 0 (Preferente maila)

### ESKUBALOIA

Bergara 20 Urola 21 (Kadete mutilak)

Donibane 20 Bergara 19 (Kadete mutilak)


Bimila 17 Bergara 28 (Senior mutilak)

### SASKIBALOIA

Zarautz 53 Bergara 56 (Infantil mutilak)



ARTXI80A



# IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako  
nekazal produktuak




San Pedro 3. BERGARA.  
Tf. 943 76 23 79

## Aldoka Maldoka

### TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA



## JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

## Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA.  
Tf. 943 76 62 02 /  
666 517 295



Irudian, Asier Altuna grabazioko une batean ahariak, alboan dituela.

IGOR LARRAÑAGA

Joan den asteburuan grabatu zuten Getariako Azkizu auzoan

## Asier Altunak Aharien talka laburra grabatu berri du

MONIKA BELASTEGI

Asier Altunak hirugarren film laburra grabatu zuen joan den asteburuan Getariako Azkizu auzoan. *Aharien talka* du izena filmak eta Joseba Sarrionandiaren ipuin baten egokitzapena da. Istorioa ahari-jokoan oinarrituta dago eta lau minutu inguruko iraupena du.

Asier Altuna Bergarako zinemagileak hirugarren film laburra grabatu berri du. Joseba Sarrionandiaren *Ez gara geure baitakoak* ipuin liburuan oinarrituta dago film horretako istorioa; *Aharien talka* izeneko ipuinaren egokitzapena da, hain justu ere. Asier

Altunaren filmak ipuinaren izenburu berbera darama, *Aharien talka*, eta lau minutu inguruko iraupena du.

Aurreko asteburuan grabatu zuten, Getariako Azkizu auzoan, eta ehun lagun inguruk hartu dute parte: horietatik, hamabost inguruk grabazio ekipoa osatu dute, eta gainerakoak figuranteak izan dira; izan ere, ez da aktorerik izan.

*Aharien talka* film laburrak ahari-jokoa eta gizonezkoak ditu oinarri, eta Altunak azaldu duenez, "ahariak eta gizonezkoak bakarrik agertzen dira filmean, guztiak arrak dira, ez dago emakumerik; ahari-jokoa arren kontua omen". Horrez gain, baina ez

du istorioaren mamiaz gehiagorik aurreratu nahi izan. Hori bai, aharien borrokaldiez gainera, gizonezkoek ere talka egiten ei dute zuzendari gaztearen laburrean.

### BAKARKAKO LANA

Bergararraren hirugarren film laburra da. Aurretik, *Txotx* eta *40 ezetz* filmak zuzendu zituen, Telmo Esnalekin batera. Hirugarrena, *Aharien talka*, bakarkako lana izan da. Altunaren hitzetan, esperientzia berria izan da azken filma, ez bakarka zuzendu duen lana delako bakarrik, baita bideo sistemarekin grabatu duelako ere. Filma udarako gertu egongo dela aurreratu du.

## LABUR

### Mikel Díez zenaren omenez, Titiriteroen Topaketa asteburuan Zugarramurdin

Mikel Díez zenaren oroimenez, Titiritero Topaketa izango da asteburuan Zugarramurdin, Eskual Titiriteroen IV. Topaketa, hain justu ere.

Bihar, zapatua, hasiko dira ikuskizunak eta domekara arte iraungo du topaketak. Egun osoan barrena, hainbat antzezlan eta kale animazio egingo dituzte Euskal Herri osoko hainbat antzerki taldek. Horrekin guztiarekin batera eta egitarau berberaren barruan, domekan, 18:00etan, Ruper Ordorikaren kantaldia izango da Zugarramurdiko Akelarrenean.

### Pazkoetarako pegatinaren esaldia asmatzeko lehiaketa antolatu du Jardun elkarteak

Aurten ere, pegatinak aterako ditu Jardun Euskara Elkartek Mendekoste jaietan. Hori horrela izanik, pegatinarendako leloa asmatzeko lehiaketa antolatu dute. Nahi duen edonork har dezake parte euskara elkarteak antolatutako pegatina lehiaketan, eta asmatutako esaldiok herriko taberna eta ikastetxeetan jarri dituzten kutxetan utzi beharko dira apirilaren 16a baino lehen, orduan jasoko dituzte-eta kutxak.

Irabazlearendako 60 euroko saria egongo da. Informazio gehiago Jardunen bulegoan (kultura etxeko sotoa) edo 943 763661 telefonoan.

### Udal Musika Bandak kontzertua egingo du domekan, hilaren 14an, Udal Pilotalekuan

Udal Musika Bandak, hilero moduan, kontzertua egingo du domekan, hilaren 14an, Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Horrez gain, emanaldiaren aurretik, 11:00etan, kalejira ere egingo du bandak herriko kaleetan barrena.

Kontzertuan bost obra eskainiko dituzte Udal Musika Bandako kideek: J. Francoren *Euskal Herriko kantak*, Verdiren *Nabuco* obertura, Kolwak-en *Traume in Herbst*, S. Chuecaren *Agua, azucarillos y aguardiente* zartzuelako aukeraketa eta H. Williams-ek konposatutako *Harry Potter* filmaren soinu-banda. Zuzendari lanetan, ohi bezala, Alfredo González Chirilaque arituko da.

### Juan Carlos Nieto bergararraren pintura erakusketa dago ikusgai Nahikari tabernan

Hamabost lanek osatzen dute Juan Carlos Nieto bergararraren pintura erakusketa; formatu ertaineko hamabost oliok, hain justu ere. Eta irudietan paisaiak islatzen dira, batez ere.

Nietok Bergaran egiten duen lehen erakusketa da. Olioetan margolariaren eboluzioa ikus daiteke: hasierako lanetan marrazkiak du, batez ere, garrantzia; azkeneko lanetan, berriz, nabari da autoreak koloreei eman nahi izan diela garrantzi handiagoa, marrazkia alde batera utzi barik, jakina.

Juan Carlos Nietoren erakusketa hilabete amaiera arte egongo da ikusgai.

## Juxe Areta argazkigilearen erakusketa gaztetxean

MONIKA BELASTEGI

Juxe Areta argazkilararen erakusketa dago ikusgai gaztetxean. Hirurogeita sei argazki inguruk osatzen dute erakusketa, guztiak zuri-beltzean, eta gai bakarra jorratzen dute: rocka.

Apirilaren amaiera arte egongo da ikusgai Juxe Areta oreretarrak gaztetxean ireki duen argazki erakusketa.

Hirurogeita sei argazki inguruk osatzen dute erakusketa eta guztiak gai bakarra dute oina-

rrian: rocka. Bestalde, hirurogeita sei argazki horiek zuri-beltzekoak dira.

Argazkiok azken lau urteotan Euskal Herriko hainbat kontzertu aretotan ateratakoak dira, besteak beste, Tunk eta Jam aretoetan. Irudiei dagokienez, hemengo eta kanpoko hainbat rock talde ikus daitezke: Andre Williams, Snobs, The Bellrays, Zen Guerrilla, Demolition Doll Rods eta Green Homets, esaterako.

Argazkiak hilabete amaiera arte egongo dira ikusgai gaztetxekeo tabernan eta kartzela zaharreko aretoko paretetan zintzilik.

### PELLO ALBERDI PINTOREAREN ERAKUSKETA DURANGON

Pello Alberdi pintore bergararrak erakusketa ireki berri du Durangoko Arte eta Historia Museoko aretoan.

Pello Alberdik bere azken lanetako batzuk jarri ditu guztien eskura Durangoko areto horretan, eta apirilaren 28ra arte egongo dira ikusgai. Erakusketako lanak mihise eta tela gaineko olioak dira eta, besteak beste, keinuak, armak, aparkalekuak, edukiontzia, orbanak eta modeloak irudikatzen ditu Pello Alberdik lan horietan.



MONIKA BELASTEGI

Euskal Herrian izandako hainbat musika talderen irudiek osatzen dute erakusketa.



Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratutako aldizkaria. 2. alia

## HOBETZEKUAK

1. Hemen daukazu **jokuak eta jolasak proposatzeko** euskaraz sarri erabiltzen dan egitura bat :

- *Ibilliko* gara zeñek berba gehixago asmau!
- *Jolas egingo* dogu harrika, harrixa zeñek urriñago bota?




2. Goguan eduki **proposamenak egitteko geroaldixa** erabili bihar dala:

- *Jokatzen* dogu? **EZ**
- *Jokatuko* dogu? **BAI**
- *Jøaten* gara etxera? **EZ**
- *Joango* gara etxera? **BAI**

3. Bestalde, jolasian gabitzela oso normala izaten da **erronkak** edo desafixuak botatzia. Hemen daukazu horretarako euskaraz erabili ohi ditudun **egiturak**, erraz-errazak, gaiñera:

- *Baietz* irabazi!
- *Irabazi baietz!*
- *Ezetz* nik adiña puntu lortu!



## IEPA LAGUNOK!

Hemen gatoz berriro. Gustau jatzuen Apatxiren lehenengo alia? Zer moduz portau ziren aitatxo eta amatxo? Lagundu zotsuen ariketak egitten? Hor daukazue gaur beste batzuk. Ia gustatzen jatzuen!

**A! Eta akordau eskoletan banatuko dotsuela ariketen erantzunak jartzeko eta sari polit batzuk lortzeko orrixak. Horrek orrixok eskolan bertan entregatu bihar ditzuzue.**

## AHO KORAPILOAK

**Ezetz errepikatu bost bider trabatu barik abizen hau!:**

Iturriberrigorriigoerrotakoetxea

**Eta ondorengo esalditxo hau?**

Aitaren kapa, aulkipean.

**Edo beste aho-korapillo ezagun hau?**

Akerrak adarrak okerrak ditto

Okerrak adarrak akerrak ditto

## KOMIKIXA



# IGARKIZUNAK

Irakurri igarkizuna  
Behin eta berriro,  
Astiro,  
Emeki,  
Poliki,  
Pipitaki,  
Papataki.  
Irakurri igarkizuna  
Eta pentsa erantzuna.  
Igartzen baduzu, aupa zu!

Igarri ezean,  
Ekin berriz bihar goizean.

Bihar goizean zer den  
Igartzen baduzu, aupa zu!  
Igarri ezean, ez etsi, eutsi  
Eta saia zaitetz berriz etzi.  
Eta etziko ez baduzu igarri,  
Ez ahaztu,  
Erantzun-orrian begiratu.

Igarkizun guztiak honako liburutik hartuak:  
Auskalo! Igarkizun eta aho-korapiloak.  
Xabier Olaso Bengoa. Pamiela argitaletxea

ERANTZUNAK:

1. Baloi 2. Eskiak 3. Frontoia 4. Sokatira 5. Surfilaria

1. Ostikoka naramate atez ate,  
lurrean edo airean  
partida amaitu arte.  
Zer ote?

2. Zuriaren gainean  
Txirrist eta mirrist  
Oinetako pareak,  
Erraldoi, labankor  
Eta elurzalea



3. Pilota guztiek  
Aurpegian jotzen naute;  
Baina nik minik ez,  
Harrizkoa naizenez.

4. Bi talde elkarren aurka,  
Bi talde indarrez tiraka,  
Bi taldeen artean soka  
Minaren minez oihuka.

5. Olatuen gainean dantzan,  
Olatuen gainean jira  
Olatuen gainean bira,  
Jirabira, jirabira,  
Olatu txikitik handira.

# MAGIA JOKUA

Esaixozu lagun bati gurutzatu deixela eskuko erdiko hatzamarra eta erakuslia irudixan agertzen diren moduan eta itxi deixela begixak.

Ipinixozu gero, mahai gainian edo, bi bola txiki eta esaixozu ikutu deixela gurutzatutako hatzamarren puntekin.

Preguntaixozu zenbat bolatxo daren. Leikiena da hiru edo lau darella esatia eta harrittuta geratuko da begixak zabaldu eta bi bakarrik darella ikusten dabenian. Bolatxo bakarra egonda be bi darella uste izaten da hatzamarrek gurutzatuta edukitta.




# LETRA-ZOPIA

Letra-zopa egitteko irakurrizuz aurrez azkeneko orriko ipuina.


A	K	A	R	T	A	K	S
P	A	Y	A	A	O	A	O
E	K	A	N	I	K	I	A
L	A	A	K	A	D	A	I
O	A	R	A	R	A	A	F
T	A	A	R	T	T	A	A
I	A	W	A	L	A	G	A
A	S	O	K	I	A	I	K

# JOLASA ETA TRESNA


Ezetz jolasaren irudixa, jolas horretarako tresna eta jolasaren izena lotu?!




A  
Txuntxurrunka egingo dogu?




B  
Kanikiaren jolasian ibilliko gara?




C  
Sokasaltuan egingo dogu?



D  
Ziburuetan ibilliko gara?



E  
Zapi-jokuan ibilliko gara?



F  
Kumak egingo dittugu?

1 \_\_\_ 2 \_\_\_ 3 \_\_\_ 4 \_\_\_ 5 \_\_\_ 6 \_\_\_

## INKESTIA



Errekreoko orduan neskak eta mutikuok elkarrekin ibiltzen zarete? Zertan jarduten dozu?



Imanol Olabarria

**G**ure klasian hiru neska eta bederatzi mutil gabiz, eta askotan elkarrekin ibiltzen gara errekreoko orduan, futbolian. Neskei asko gustatzen jakue futbolian egittia, eta gurekin ibiltzen die.



Ane Vicente

**B**atzuetan mutillekin eta beste batzuetan neskak bakarrik ibiltzen gara. Soka-saltoka, harrapaketan eta saskibaloian egitten dogu neskak. Mutillekin futbolian eta saskibaloian be bai.



Mikel Arroyo

**G**elako neskekin ondo konpontzen naiz, eta batzuetan erekin batera ibiltzen naiz, harrapaketan eta ezkutaketan. Mutillekin be gustatzen jat futbolian egittia. Realzalia naiz.



Lorea Larrañaga


**F**utbolian egitten dogu mutillekin, baiña gutxitan pasatzen doskue baloia... Balukonian mutilen kontra jokatzen dogu eta galtzen dabenak meriendia ordaindu biharra dauka kurtso bukaeran.

## NERE GOMENDIXUA



MIREN JULDAIN  
Mariaren Lagundia

'NIKOLAS TXIKI'  
Gosciny-Sempé  
Itzultzaillia: Imanol Tapia  
Elkar argitaletxia  
200 orrialde



**I**puin barregarrixak gustatzen jat, eta *Nikolas* eta bere gelakidien gaiztokekin ondo pasau dot. Errez irakurtzen da liburua. **Marrazkixak** be badakaz. *Nikolas* gure edadeko mutikua da eta klasera ikastera eta dibertitzera juaten da. Liburuan, *Nikolas*en ikastetxia errebisatzera juaten dan inspektore bat agertzen da, eta segittuan konturatzen da *Nikolas* eta bere lagunak oso bihurrixak diela.



# ipuinak

## URREZKO GILTZIA

**N**egu gorrixan, edurte ikaragarri batekin, mutikotxo behartsu batek trineuan urten bihar izan zeban egur billa. Hotz haundixa egitten zeban eta egurra batu eta kargatu ondoren, sua egittia erabaki zeban apur bat berotzeko. Hasi zan edurra puxkat baztartzan eta, –hara zelako ezustekua!– urrezko giltza txiki bat topau zeban. Bere artian pentsau zeban:

Giltzia hemen badago, giltza honek zabaltzen daben sarrailia be hemen inguruan izango da ba.



Hasi zan lurra atxurtzen eta burdiñazko kutxatxo bat topau zeban.

– Zabalduko baneu, bai ondo! –pentsatu zeban–, kutxatxuan gauza dotoriak egongo dira, seguru...

Billa eta billa ibilli zan, eta sarraila zulorik ez; baiña, halako baten, topau zeban

bat justu-justu ikusten zana. Aprobia egin zeban eta giltzia ondo sartu zan. Hiru buelta emon zotsan eta..., ai! orain zain egon biharra daukagu, mutikuak kutxatxua guztiz zabaldu eta tapia zabaldu arte; gero jakingo dogu kutxatxuan zelako gauzak zeren.

Baiña zain egon barik be badaukazue kutxatxuan zer zeguan jakittekko aukeria. Jolasian egitteko lau gauza zeren eta euren izenak **2. orrialdeko letra-zopan** topauko ditzuzue.





E, TXO!

GUREGAIK/ AISIALDI TALDEAK

# Aisialdi Foroaren lana ezagutarazi nahi dute

AINZANE IRIZAR

Duela bi urte hasi ziren hainbat eskola, heziketa mugimendu eta Euskal Gazteriaren Kontseilua lankidetzan. Joan den eguaztenean prentsaurrekoa eskaini zuten sortu duten Aisialdi Foroa aurkezteko.

Euren helburua da Gipuzkoako aisialdi mugimendua indartu eta bultzatzea. Horretarako, Gipuzkoako heziketa eskola eta mugimenduak elkartu, eta Aisialdi Foroa sortu dute Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren laguntzarekin.

Aisialdi Foro horrek Gipuzkoako aisialdiaren egoeraren gaineko analisia eta diagnostikoa

egin nahi du, eta horren arabera, erronkak eta estrategiak zehaztu. Bestalde, aisialdian lanean diharduten Gipuzkoako taldeak elkar ezagutu eta lankidetzan aritzeko gunea izango da.

Bide batez, aisialdian diharduten talde guztiak gonbidatu zituzten Aisialdi Foroko partaide izatera.

**UDAKO EGITARAUA**

Aisialdi Foroa aurkeztearekin batera, aisialdi taldeek aurtengo udarako antolatutako dituzten udaleku, kanpaldi eta bestelako jardueren berri ere eman zuten. Gipuzkoako 10.000 bat gaztetxok eta 1.400 bat begiralek parte hartuko dute udako ekintza horietan, eguaztenean azaldu zuten.



Aisialdi taldeek udarako antolatutako dituzten jarduerak ere aurkeztu zituzten.

**ARGAZKI ERAKUSKETA**  
Musika kontzertuetako argazkien erakusketa ikusgai dago gaztetxean. Juxe Aretaren argazkiak dira, eta apiril amaierara arte egongo da zabalik.

**ZINEMA EMANALDIA GAZTETXEAN**  
Domeka arratsaldean, 18:00etan, *Taxi driver* filma eskainiko dute gaztetxean. Eta eguaztenean, berriz, 22:00etan, *El tercer hombre* filma eskainiko dute.

**ITOITZEN ALDEKO MANIFESTAZIOA**  
Bihar, zapatua, manifestazioa egingo dute Iruñean, *Itoitz bizirik* lelopean. Manifestazio horretara joateko, autobusa antolatu dute Bergaratik. Joan nahi dutenek Arrano eta Pol-Pol tabernetan eta gaztetxean eman beharko dute izena. 16:00etan irtengo da autobusa autobus geltokitik.

**ASIER SERRANOREN KONTZERTUA**  
Datorren egubakoitzean, apirilaren 19an, eskainiko du kontzertua Bergarako gaztetxean Asier Serrano bakarlariak. Lorelei taldeko abeslaria izan zen Asier, eta bakarlari moduan dihardu gaur egun. Datorren astean bertan kaleratuko du bakarkako lehen diskoa: *Ez esan inori*; datorren egubakoitzean disko hori aurkeztuko digu Bergaran.

**KUDRILLATEGIKOAK, GALARTZARA**  
Aretxabaletako Galartza auzoko aterpetxera joango dira Kudrillategiko neska-mutikoak asteburua pasatzera. Debako eta Aretxabaletako Kudrillategikoekin pasatuko dute asteburua.

LOTSABARIK/ Naiara De Marcos

## “Gezurrek amorratu egiten naute”

AINZANE IRIZAR

Presaka zebilen martitzen arratsaldean Naiara. Izan ere, eguaztenean Oriora joatekoa zen, bere ikaskideekin batera. Baina etorri zen jarritako hitzordura, eta hona hemen harekin egindako solasaldia.

- Txikitán, zer izan nahi zenuen?  
Irakasle; beti gustatu izan zaizkit umeak.
- Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?  
Ez dut horretan pentsatzen, etorri behar dena etorriko da; dena dela, espero dut irakasle edo kazetari lanean ibiltzea.

- Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriro?  
Logela jasotzeko, txukun edukitzeko eta, zelan ez, ikasteko.
- Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.  
Bat edo beste badaukat, baina gezurrak esan eta horrelakorik ez dut egiten.
- Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?  
Familiari eta lagunei.
- Zure bertute bat?  
Sekretuak gordetzen dakit, eta lagun ona naiz.
- Eta hutsune bat?  
Asko berba egiten dut, eta hori kasu batzuetan oso txarra da; irakasleek, esaterako, sekulako errietak egiten dizkidate.

- Zerk amorratzen zaitu?  
Niri gezurrak esateak; izugarri amorratzen naiz engainatzen baldin banaute.
- Zure gorputzeko atalik gustukoena?  
Begiak.
- Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?  
Fisikoki, begiei; baina izaerari ere garrantzia ematen diot, hau da, ikusten dut ea pertsona jatorra den.
- Zer egiten duzu seduzitzeko?  
Nik ez dut ezer ere egiten; naizen modukoa azaltzen naiz.
- Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?  
Ez daukat fantasiarik, baina edukita ere, ez nuke kontatuko.




ADINA: 14 urte • IKASKETAK: DBH (3.a) • ZALETASUNAK: Uretako motoan ibiltzea, eta lagunekin • LIBURU BAT: 'Con los ojos cerrados', Federigo Tozzirena • FILM BAT: 'Los otros' • MUSIKA TALDEA: Denetik gustatzen zait • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA/ Bittor Rodríguez



ZAHARREN ETXETIK



Erramu Zapatuan egindako sinadura bilketan herritar ugari hartu zuen parte.

## San Joxepe Zaharren Agiriaren aldeko 1.200 sinadura batu zituen

EDU MENDIBIL

San Joxepeko kideek Zaharren Agiriaren aldeko 1.200 sinadura batu zituzten Erramu Zapatuan, martxoaren 23an. Deialdia guztiz arrakastatsua gertatu zen Bergaran, kontuan izanik Gipuzkoa osoan 10.000 sinadura inguru jaso direla.

San Joxepeko kideak oso pozik azaldu dira Zaharren Aldeko Agiriak gure herrian izandako erantzunarekin. Gizartekintzak eta Gipuzkoako Adineko Pertsonen Kontseiluak landutako agiriarekin bat egin du Bergarako herriak. Alde batetik, 1.200 herritar inguruk beren atxikimendua azaldu zuten martxoaren 23ko sinadura bilketan eta, bestetik, Udaltzako ere bere oniritzia eman zion agiriari martxoaren 25eko plenoan. EAJ-EA eta Batasuna alderdiek onartu zuten mozioa. PSE-EE eta PPko zinegotziak ez ziren plenoan izan.

Diputazioaren ekimenez, agiri aztergai izan da azken asteo-

tan Gipuzkoako udaletan eta, era berean, firma bilketa egin da. Tomasa Zabaleta San Joxepeko presidentearen arabera, "udal gehienek baiezkota eman diote agiriari eta, guztira, 10.000 sinadura inguru batu ditugu". Aste honetan Madrilen ospatu den Zahartzearen Munduko II. Asan-

bladan agiria bera eta jasotako sinadurak aurkeztekoak ziren. Tomasa Zabaleta Gipuzkoako Adineko Pertsonen Kontseiluko presidenteordea da eta Madrileko batzarrean izan da.

### ADINEKOEN ESKUBIDEAK

Zabaletaren arabera, "agiriarekin adineko pertsonen eskubideak aldarrikatu nahi dira, gaurko gizartean gazteei ematen zaizkion lehentasuna eta adineko pertsonen baztertu egiten gaituztelako askotan. Gizartean parte hartzeko dugun ahalmena azaldu nahi dugu. Gizartean presenteko egotea da gure helburuetako bat, 60 urtetik 80 urtera bitartean bizitza tarte zabala dagoelako. Norberak galdetu behar dio bere buruari zer nolako bizimodua egin nahi duen".

Lehen aipatutako agiriaren jasotzen denez, "benetako aukerak eman behar zaizkie zaharrei, eta bitartekoak jarri, bizitza pribatua nahiz gizarte bizitzan beren eskubide zibil, politiko eta ekonomikoak eta gizarte eta kultura eskubideak erabiltzeko".

## Uste baina sinadura gehiago

**Erramu Zapatuan bildutako jendetzak uste baino sinadura gehiago batu zuten. Agirian, zaharren eskubideen artean, duintasun eskubidea, independentzia eskubidea, parte hartzeko eskubidea, norberaren errealizatorako eskubidea eta norberaren eskubideak ezagutu eta defendatzeko eskubidea nabarmentzen dira.**

## LABUR

### Mendizaleen topaketa izango da Erreterian datorren apirilaren 24an

San Joxepe elkarteak apirilaren 24an Erreterian izango den mendizaleen topaketara joateko irteera antolatuta du. Bergaratik irteera 7:30ean izango da eta Zumarragatik Erreteriarara trenetuz joango dira. Bazkaria Erreterian bertan izango dute. Prezioa 6,65 eurokoa da eta izena apirilaren 20a baino lehen eman beharra dago San Joxepen bertan.

### Informatika ikastaroak San Joxepen apiriletik ekainera bitartean

Apirilaren 22tik aurrera erretiratuei zuzendutako informatika ikastaroak egongo dira San Joxepen, goiz edo arratsalde. Ikastaroak doanekoak izango dira, baina aurretik 6 euroko depositoa ordaindu beharra dago. Eskoletara joaten direnei dirua itzuliko zaie ikastaroa bukatutakoan. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian.

### Najerara eta Santo Domingora irteera apirilaren 30ean San Joxeperen eskutik

Datorren apirilaren 30erako Najera eta Santo Domingo bisitatzeko irteera iragarri du San Joxepe elkarteak. Irteera autobus geltokian egingo da, 9:00etan. Errioxan, Najeran, bisita gidatua egiteko aukera edukiko dute eta ondoren, 14:30ak aldera, Santo Domingon bazkalduko dute. Joateko interesa dutenek San Joxepen eman dezakete izena.

## ZAHARREN ETXETIK

### Rosa Mari Aranbarri

SAN JOXEPEKO TABERNAKOA

Azkoitiarra jaiotzez, duela 28 urte etorri zen Bergarara bizitzera, ezkondukoan. San Joxepeko tabernan dihardu lanean eta gustoko lana duela dio.

### Tabernako ala sukaldeko lana nahiago?

Hemen denetik egin behar izaten dugu, baina tabernan jardutea gustatzen zait gehiago, jendearekin egoteko aukera edukitzen dudalako. Bestela, hor ibiltzen gara sukaldean, lapiko artean. Egutero 20 bat lagun etortzen dira bazkaltzera San Joxepeko jantokira, eta menua prestatu beharra dago. Bestalde, gero eta neska-mutiko gehiago etortzen da ogitartekoak erostera. Lan faltan ez gara egoten. Batez ere arratsaldean etortzen da jende gehien, kartetan joka-



tzera eta kafea hartzera. Lanetik kanpo zer egitea gustatzen zaizu?

Denbora libre gutxi daukat baina ahal dudanean pasiatzera joaten naiz.

### Erretiratzeko gogoz?

Lanari lagatzeko bai, baina jubilatzeak zahartzea esan gura du eta ez dakit ba...

## Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma  
Pintura zerbitzu osoa  
Moketak  
943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59  
Bergara

## IKUSBI

ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK  
Iraila 5  
BERGARA  
943 76 53 09

## GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES

BERGARA  
607 349 043



Grua zerbitzua  
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

## Mujika gozotegia



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA  
943 76 10 34

## TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguteroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel. 943 76 39 53

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Herriko zein bi eraikinetan daude Bergarako armarrionak?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Zumarra

*Ulmus sp.*

MAITANE ARIZABALETA


Berrogei metro har dezakeen tamaina handiko zuhaitz hostogalkorra. Adaburua zabala, biribildua eta irregularra du. Enborra, aldiz, lodia eta zuzena da, eta azala, latza. Hosto asimetrikoak ditu, hau da, alde bat bestea baino garatuagoa dauka.

Klima epeletako espeziea den zuhaitz hori ibai bazterretako zoru fresko eta sakonetan bizi da, batik bat, nahiz eta gure herrietako plaza, hiribide eta parkeetan apaingarri zuhaitz bezala erabilia izan. Esaterako, Bergaran Erregetxo plazan ikus dezakegu.

Gaur egun, Euskal Herrian zuhaitz hori sakabanatuta dago. Azken urteotan, grafiosi gaitzak gogorki eraso egin dio eta zuhaitzaren bizi iraupena arriskuan jarri du.

Zumarraren egurra, lantzeko erraza, gogorra eta usteltzeko zaila denez, untzigintzan oso estimatua da, baita altzarigintzan eta erreminta kirtenak egiteko ere. Bestalde, fitoterapiari erabiltzen dute, azalak ezaugarri lehorgarriak ditu-eta; hau da, azalak azaleko arazoei aurre egiteko pomadak egiteko balio du.

*“Euskal Herrian sakabanatuta dago, eta grafiosi gaitzak gogor eraso dio zumarrari”*



ARGAZKILARIA

GALDEDEBALDE

1.

Zenbat bisitaldi gidatu egin dituzte Aste Santuan Turismo Bulegoan?

- A/ Hamabi.
- B/ Hamalau.
- C/ Zortzi.

2.


Zenbat figurantek egiten dute lan Asier Altunaren hirugarren film laburrean?

- A/ 120.
- B/ 80.
- C/ 40.

3.

Gorlako Txakur Leren Lasterketaren zenbatgarren aldia izango da aurtengoa?

- A/ Bederatzigarrena.
- B/ Hamargarrena.
- C/ Seigarrena.



Super BMk emandako 60 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MAITE ARANTZABALendako izan da 60 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Maite! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Iparragirre kalean eta Fraiskozuri plazan / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-B.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Colon detergentea

18 kazotxo +%15 doan

4,80 €

799 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



AGENTEA

Ramon Maria Lili, 6-behea

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54

Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:

9.00-14.00 eta 15.30-19.30



IRAEGI  
ASEGURUAK



ARRI

Industri  
hornidura

Zubiaurre, 30  
BERGARA  
Tf. eta faxa:  
943 76 19 04.  
Sakelakoa:  
656 78 64 84.



BERGARA  
**Iñigo Ugarte**  
Apirilaren 9an 27 urte.  
Urte askotarako!  
Koadrilakoak.



BERGARA  
**Julen Murgiondo**  
Apirilaren 4an urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta arreba Irati.



BERGARA  
**Bittor Poza**  
Apirilaren 13an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Lorea eta gurasoak.



BERGARA  
**Leire Gago**  
Apirilaren 8an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak eta Maider.



BERGARA  
**Amagoia Roman**  
Apirilaren 8an 3 urte.  
Zorionak! Jokin, Alazne,  
Asier eta etxeokak.



BERGARA  
**Anne Zengotita**  
Apirilaren 15ean  
urtebete, Zorionak!  
Joseba eta etxeokak..



BERGARA  
**Aitor Zurro**  
Apirilaren 13an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Naroa Mujika**  
Apirilaren 16an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Aitaxo eta amatxo.



BERGARA  
**Maria Edroso**  
Apirilaren 10ean  
urtebete. Zorionak!  
Gurasoak eta Mikel.



ANTZUOLA  
**Karmen Irizar**  
Apirilaren 4an urteak.  
Zorionak! Etxekoak;  
batez ere, Onintza.



BERGARA  
**Idoia Regorigo**  
Apirilaren 11n 7 urte.  
Urte askotarako!  
Ekaitz eta familiakoak.



BERGARA  
**Beñat Landa**  
Apirilaren 11n  
urtebetetzea. Urte  
askotarako! Etxekoak,



BERGARA  
**Ainhoa Mujika**  
Apirilaren 18an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Miren eta Mikel.



BERGARA  
**Ibai Agirrezabal**  
Apirilaren 12an 2 urte.  
Zorionak! Ainhoa, gura-  
soak eta aitona-amonak.



BERGARA  
**Ane Zangitu**  
Apirilaren 12an 11 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Oscar Perez**  
Apirilaren 11n 5 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

**Elgeta:** Erosle-Baltxungo



BERGARA  
**Ander Garcia**  
Apirilaren 11n urtebete.  
Zorionak! Etxekoak;  
batez ere, Mikel.



BERGARA  
**P. Xabier Iñurrieta**  
Apirilaren 15ean 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Urko Nogales**  
Apirilaren 14an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Aitona-amonak.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehiezez: 13 x 18 cm. / Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. / Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, BERRIGARAn agertu ondoren. / Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzeko komeni da.




Oraindik ez du GOIENASPORT ikusi.

Bailarako kirola astero begi bistan.

### GOIENASPORT

- Astelehenetan, 20:30ean
- Errepikapena martitzenetan, 14:30ean
- Aurkezlea: **Julen Iriondo**



# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko apirilaren 19a / 108. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

## Pintadak garbitzea bere gain hartzea erabaki zuen Udalak

AINTZANE IRIZAR


Martxoaren 26an ezohiko osoko bilkura egin zuen Udalak. Otsailaren 20an herrian azaldutako pintaden gainean erabaki bat hartzea zen pleno berezi hori egiteko arrazoia. Azkenean, Udalak erabaki zuen bere gain hartzea pintadak garbitzea.

Otsailaren 20an pintada ugari azaldu zen herrian. Etxe partikularretan egin zituzten pintadok, eta ordenantzen arabera, ez dagokio Udalarri pintadak garbitzea. Hala ere, garbiketa hori bere gain hartzea erabaki du Udalak. Gauzak horrela, laster hasiko dira pintadak garbitzen.

Batzarraren hasieran, Batasunaren iritzia azaltzeko, idatzi bat irakurri zuen alkateak. Kalteuekiko elkertasuna adierazi eta ekintza hori ez zuela onartzen azaldu zuen Batasunak. Bestalde, pintadak, Euskal Herriak bizi duen egoera politikoaren ondorio direla ere adierazi zuten.

Beste bi proposamen ere bozkatu zituzten osoko bilkuran: pintaden atzean egoera politiko zehatz bat dagoela adierazten zuen puntua onartu zuten bate-tik; eta bestetik, pintadak ez dituztela onartzen eta justifikatzen adierazi zuten.

**EZTABAIDAREN OSTEAN, ADOSTASUNA** Eztabaida luzea izan zuten zinegotziek. Juan Benítez PSE-EEko zinegotziak pintadak Udalak gar-



Otsailaren 20ko gauean pintada ugari azaldu ziren herriko hormetan.

*Pintadak ez dituztela onartzen eta justifikatzen adierazi zuen udalbatzarrak*

*Ekintza honen atzean egoera politiko zehatz bat dagoela adierazi zuten*

*PSE-EEko zinegotzi Juan Benítezek pintadak Udalak garbitzearen aurka bozkatu zuen*

bitzearen aurka bozkatu zuen, eta beste bi puntuetan abstenitu egin zen. Gainerako zinegotziak, baina, bat etorri ziren hartutako

erabakietan. Bozkatutako puntuetan adostasuna azaldu arren, Jose Angel Zabalo EAJko zinegotziak salatu zuen Udala ez dela

gai izan pintaden gaineko komunikatu bat ateratzeko; bestetik, Batasunaren idatzia arina dela adierazi zuen.

### LABUR

#### Hainbat lapurreta egin zituzten joan zen asteburuan

Zapatutik domekarako gauean Itzar liburu-dendan lapurrak sartu eta tabakoa eta dirua eramane zituzten. Pertsianan zuloa egin eta atea indarrez zabaldu zuten barrura sartzeko. Kalebarrenen kotxe bat lapurtu zuten, eta beste bi kotxe azaldu ziren kableekin konexioa eginda.

#### Udalekuetarako begiraleak behar dituzte

Aurten, uztailaren 1etik 18ra izango dira udalekuak, eta begirale moduan jarduteko jendea behar dute. Bi baldintza eskatzen dituzte begirale aritzeko: euskaraz jakitea eta 18 urteak beteta izatea. Interesatuak, udaletxean eta Udala liburutegian eman dezakete izena.

#### Herriko neska-mutikoendako ipuin lehiaketa

Apirilaren 23a baino lehen, liburutegian entregatu behar dira Patxiko Txerren ipuingintzan parte hartzeko ipuinak. Ikastetxeko lehen mailatik seigarrenera bitartekoek parte har dezakete. San Isidroko ferian, maiatzaren 18an, banatuko dituzte sariak.



Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**AITZ-GARBI**



Pintxoak eta kazuelatxoak.  
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51  
ANTZUOLA

**ANTZUOLA**

Apainketak eta isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40



## Kartoiz eta paperez beteta edukiontziaeren inguruak

Joan den egunean, apirilaren 4an, ateratakoa duzue honako argazki hau. Herri Ikastetxearen aurreko aldean, paperendako eta kartoiendako dagoen edukiontziaeren inguruak zikin-zikin egin da azaldu ziren egun hartan. Udalean esan digutenez, gainera, ez da hori gertatzen den lehen aldia. Badirudi norbaitek kartoiak kanpoan laga zituela, eta gero etorri ziren guztiek ere gauza berbera egin zutela. Edukiontzian, baina, nahiko toki zegoen oraindik. Antzuolako Udaleko ardura-dunek espero dute jendea kontzientziatu eta horrelako gehiago ez gertatzea./A.I.

## KIROLA

### Futbol taldeei amaitu zaie Aste Santuko oporraldia

Aste Santua zela-eta, azken bi asteburuetan ez dute partidurik izan. Oraingo asteburuan itzuliko dira futbol zelaietara. Erregionalekoek etxean jokatu dute, Urolaren aurka. Gainerakoek, berriz, kanpoan: neskek Legazpin, gazteek Irunen eta kadeteek, berriz, Aretxabaletan.

### Peñagarikano 8. geratu zen Euskadiko Duatloi Txapelketan

Aitor Peñagarikano atleta antzuolarra zortzigarren izan zen esprint modalitateko Euskadiko Duatloi Txapelketan. Domekan jokatu zuten txapelketa hori, Barakaldon. Bost kilometro korrika, 20 bizikletan eta beste bi kilometro eta erdi korrika egin behar izan zituzten duatletek. Aitorrek 56 minutu eta 56 segundo behar izan zituen proba amaitzeko, irabazleak baino hiru minutu eta 22 segundo gehiago.

Iker eta Aitor Larreak ere parte hartu zuten: Iker hamaugarren sailkatu zen eta Aitor, berriz, hogeita hamahirugarren.

## PARTIDUAK

### FUTBOLA

Apirilak 13

16:30: Antzuola-Urola B (2. erregion.)

### PILOTA

Apirilak 13 (Herriko pala txapelk.)

09:00etatik aurrera

bost partidu jokatu dituzte.

16:00etan beste partidu bat.

### Gipuzkoako Herri Artekoan ez du parte hartuko Olalde

Denboraldi ona egiten dihardute Olalde elkarteko pilotariak. Udaberri Sarian, Gipuzkoako Ligan eta Debarroko Txapelketan ibili dira pilotariok.

Gipuzkoako Herri Arteko Pilota Txapelketan, baina, ezin izango du parte hartu Olalde; izan ere, nagusien mailan, kadeteetan eta infantiletan bikoteak badituen arren, Olalden ez dago gazte mailako bikoterik.

Gauzak horrela, aurtengo denboraldian ez dute txapelketa horretan parte hartuko; baina Olaldeko arduradunek espero dute 2003an parte hartzea.

## ATREBENTZIAEZPADA/ Liburutegira juateko ohiturarik badaukazu?



**GORKA ELIZBURU**  
19 urte

Juten naiz, baiña gutxi. Biharra daukadanian juten naiz; irakurri irakurtzen dot, baiña liburutegira, batez be, informaziño billa juten naiz.



**KILI GARCÍA**  
52 urte

Bai, asko gustatzen jat irakurtzia, eta erabiltzen dot herriko liburutegixa. Danerako liburuak hartu izan dittut: nobelak eta bestelakuak be.



**ANA DELGADO**  
37 urte

Alabak askotan juten die. Nik ez daukat irakurtzeko denporarik, eta gainera, liburu jakiñen bat nahi dotenian, erosi egiten dot normalian.



**AGURTZANE OLLOKIEGI**  
30 urte

Lehen, umiak, gehixago juten nintzan ipuiñak irakurtzera. Irakurtzeko afiziñua badaukat, baiña oin, umiekin, ez daukat denpora askorik.



**RAMON ARZAMENDI**  
50 urte

Gure alabak askotan juten die, baiña neu ez. Nik ja ez daukat irakurtzeko afiziñorik. Kartzelan nenguanian nahikua irakurri neban.

## LABUR

### Jose Angel Zabalok Gobernu batzordea uztea erabaki du

Martxoko ohiko osoko bilkuran adierazi zuen Jose Angel Zabalo EAJko zinegotziak Gobernu batzordea lagatzeko asmoa zuela. Martxoaren 26an egindako ezohiko bilkuran, berriz, idatziz aurkeztu zuen dimisioa. Edozelan ere, gainerako batzordeetan lanean jarraituko du Zabalok.

Gauzak horrela, Juan Jose Azkarate Zutik alderdiko kidea izango da Gobernu batzordekide berria, Mireia Unamunorekin eta Jon Kortabarriarekin batera.

**EGAÑA**  
Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatutia eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**zabalo**  
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak  
Teilatuak  
Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA.  
Tf. 943 76 60 89

*Juan Cruz*  
ARGAZKIAK

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko apirilaren 19a / 94. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

## GOITBko seinalea heldu da Elgetara; etxe guztietan ikusten da, gehigarri bat jarrita

OXEL EROSTRBE


Zaiazko telekomunikazio teknikariek GOITB herriko telebistetara eramango duen seinale zabaltzailea jarri dute dagoeneko Uruburuko teilatuan. Orain, etxe bakoitzetik gehigarri txiki bat Uruburura begira jarri behar da. Jartzeak 30-40 euroko kostua dauka.

Laster, GOITB ikusiko da Elgetan. Goienak eta Goibeko Kultura Elkarteak nahi zutena baino geroago, baina azkenean telebista Elgetaraino heldu da.

Zaiazko telekomunikazio teknikariek aste osoan jardun dute seinale zabaltzailea Uruburuko teilatuan jartzeko lanetan. GOITB ikusiko den kanala ere ia erabakita zeukaten eguaztenterako. Bergarako Aizemenditik bidaliko dute seinalea Uruburura. Sarre-rako kanala, seguruenik, 52a izango da eta irteerakoa 54a edo 50a. Kanala aukeratzeko orduan zenbait arazo izan dituzte teknikariek. Izan ere, Elgeta leku garaian kokatuta dagoenez, leku askotatik sartzeko dira frekuentziak. Edozelan ere, kanala 54a edo 50a izango dela ia ziur zeukaten eguaztenean. Kanala erabakitze-ko azken frogak egiteko asmoa zeukaten Zaiazkoko teknikariek gaur goizean.

Seinale zabaltzailea Uruburuko kokatuta, hurrengo pausoa izango da etxe-antenez arduratzen den teknikariari deitzea, Uruburutik datorren seinalea hartzeko, etxebizitzako antenari gehigarri txiki bat gehitu behar zaio-eta. Gehigarri hori jartzea derrigorrezkoa izango da GOITB ikusteko. Horrez gain, eta kanalaren arabera, amplifikadore bat ere jarri beharko da. Teknikariek esan digutenez, antenaren eta amplifikadorearen kostua 30-40 euro ingurukoa izango da (5.000 pezeta). Esan bezala, GOITB ikusteko, behar-beharrezkoa izango da bi gehigarriok jartzea.

Herritarrek bazeukaten gogoia GOITB Elgetan ikusteko. Izan ere, GOITBko kamerak herrian sarritan izan diren arren, orain arte ez dugu aukerarik izan programazioa gure etxeetan ikuste-



Teknikariek astelehen arratsaldean jarri zuten Uruburuko teilatuan GOITBko seinale zabaltzailea.

*Azken frogak egin ondoren, GOITBko kanala zein den erabakiko dute gaur teknikariek*

*GOITB ikusteko, amplifikadore eta gehigarri txiki bana jarri beharko dira etxe-antenan*

*Gehigarri hori edozein antena teknika-rik jarri dezake eta 30-40 euro balio du*



OIHANE AGIRRE /GOITB-KO ZUZENDARIA

*"Herri txikia izateak ez du esan gura albiste gutxiago izango direnik"*

**Laster ikusiko da GOITB Elgetan. Zer eskaintzen du GOITBk beste telebista kateekin konparatuta?**

Debagoieneko berri. Gertuko da albiste ibarreko telebistan, eta hortaz, Elgetan gertatzen denak ere izango du lekua. Gainera, ibarreko komunikabide garez gero, medioa zabalik dago herritar guztiei.

**Zein eratako programazioa dauka GOITBk?**

Albistegiak dira Goiena Telebistako saio nagusiak, eguerdietan eta arratsaldeetan. Horrez gain, beste hamar saio ikusteko aukera dago, hainbat formatutan eta mota guztietako ikusleei zuzenduta. **Elgetak zer leku izango du GOITBn?**

Debagoieneko herriek dutena. Herri txikia izateak ez du esan gura albiste gutxi izango direnik. Herritarrek zuzenean

parte har dezakete. Elgetarrek telebistara hurreratzeko lotsa alde batera uzten duten neurrian izango da protagonista Elgeta Goiena Telebistan. **GOITB zer izango da Elgetarako?**

Elgetarrak Debagoienera hurreratzeko tresna. Aurrerantzean, egunero-egunero Debagoieneko berri izateko aukera izango dute elgetarrek.

ko. Aurrerantzean, ordea, bai ibarrean eta bai gure herrian gertatzen diren albiste berri emango digu GOITBk. Azken esfortzua egitea geratzen da, nor bere antenan behar diren konponketak egitea, hain zuzen ere.

**UDALA ETA GOIBEKO, POZIK**

Udalak eta Goibeko Kultura Elkarteak balorazio positiboa egin dute GOITB Elgetara heldu dela-eta. Udaleko Kultura teknikari Enrike Gorrotategik nabarmendu digunez, telebista garrantzitsua izango da ibarrean gertatzen direnak egunero jakiteko: "Telebista eskaintzen artean bat gehiago izango da, baina hori bai, hemengo. Telebista guztien helburuez gainera, beste helburu batzuk ere beteko ditu: esate baterako, eskualdeko informazioa emateak eskualdeko komunitate kontzientzia indartuko du eta, era berean, hemengo euskara erabiltzeak etxe-antena beharrezko duen prestigioa ematen lagunduko du."

Goibeko Kultura Elkarteak ere egin du balorazioa. Iban Retolazak adierazi digunez, oztopoak oztopo, azkenean garrantzitsuenak da ibarreko telebista herrian ikusiko dela: "GOITB Elgetara heltzea positiboa iruditzen zait. Ibarreko sare mediatikoaren beste aukera bat da. Hemendik aurrera, Debagoiena osoko albisteak bertatik bertara jarraitzeko aukera izango dugu egunean bertan. *Goienkaria*-n, esate baterako, astean behin kaleratzen dira, eta horrela, albisteek garrantzia gaitzeaz aparte, guri Elgetara ez zaizkigu heltzen Oñatiko, Arrasateko, Aretxabaletako eta beste herri batzuetako berriak, oso potoloak ez badira, behintzat. Bestalde, kontuan hartzeko da Udalaren aldetik jarritako oztopo guztiak gaitzeaz asko kostatu dela eta zeregin horretan Goibeko Kultura Elkarteak, elgetar askok osatutako elkarteak, eragina izan duela. Horrek berorrek balio handiagoa ematen dio GOITB Elgetara heldu izanari."

Aurrerantzean, ibarreko berriak telebistaren bidez ere jasoko ditugu elgetarrok, eta hori da orain garrantzitsua.



KIROLA

# Apirilaren 27an hasiko da aurtengo areto futbol-txapelketa

O.E.  
Udaleko Kirol Zerbitzuek zabaldu dute aurtengo areto futbol-txapelketan izena emateko epea. Parte hartu nahi duten talde guztiak datorren barikura arte dute epea horretarako. Izena emateagatik 30 € ordaindu beharko ditu talde bakoitzak. Udaletxean eta 943 76 80 22 telefonoan eman daiteke izena txapelketarako.

Txapelketa apirilaren 27an hasi eta ekainaren 29an amaituko da. Laz bezala talde denak elkarren aurka behin bakarrik jokatuko dute. Amaieran, aurreneko laurek final aurrekoak jokatuko dituzte eta irabazleek finala.

Sariei dagokienean, lehenengoak garaikurra eta 180 €-ko diru saria jasoko ditu eta bigarrenak garaikurra eta 90 €-koa. Txapelketan zehar gol gehien egiten dituen jokalaria garaikurra eta 60 €-ko diru saria jasoko ditu.

**TALDE GUZTIEKIN BILERA**

Txapelketa hasi aurretik, izena ematen duten talde guztiak biler...



Laz, Vicios taldea izan zen areto futbol txapelketako irabazlea.

ra egingo du kirol teknikariak. Izan ere, txapelketa behar den bezala joan dadin talde guztiak ados jartzea derrigorrezkoa da.

Iaz, Durangoko Vicios taldea izan zen txapelketako irabazlea. Ea aurten herriko talderen batek irabazteko aukerarik dagoen.

## Iraitz Lazkano Euskadiko kung-fu txapeldunen artean

Aste Santuaren atarian, martxoak 23an, Tolosako Uzturpe kiroldegian jokatuta zen kung-fuko Euskadiko txapelketan parte hartu zuen Iraitz Lazkanok. Gipuzkoako txapelketan bezala, emaitza ezin hobekak lortu zituen Iraitzek bertan.

Orokorrean Txapelketa ona egin zuen, oso nota altuak lortu zituelarik. Gainera, Gipuzkoako txapelketan bezala, Nam-Chuan eta Chang-Chuang modalitateetan lehenengo postuak lortu zituen. Lortutako emaitzekin oso pozik zegoen Iraitz. Zorionak!




Iraitz Lazkano.

## Valentziaga Memoriala amaitu zuen Aranguren

Domekan afizionatu mailako lasterketa garrantzitsuenetakoa izan zen Eibarren, Valentziaga Memoriala hain zuten.

Lasterketan 200 txirindularik hartu zuten parte eta hauen artean izan zen Xabier Aranguren elgetarra.

Eibarko helmugara iristea ehun txirindulari inguruk bakarrik lortu zuten. Xabierrek 86. postuan amaitu zuen. Helmugara iristen lehenengoa Dioni Galparsoro izan zen. Xabierrek irabazlearengandik hamabi minutu amaitu zuen lasterketa.



Xabier Aranguren.

APOSTUA

# Butano betearekin Elgetatik Asentziora

O.E.  
Herriko gazte talde batek apostura antolatu du zapatu goizera. Elgetan irten eta Intxortatik pasa ondoren, Asentzioraino butano bonbona betea 45 minutuan baietz eraman da apostura. Goizeko 10:00etan Abeletxen txabola parean irten eta Intxortako tontorrera igo beharko du lehenengo Etor Sarasuak 25 kiloko pisua duen butano bonbona betea. Intxortara heldu eta gero, Asentzioraino jaitsi beharko da 45 minutuan. Apostura irabazteko Elgetatik Gure Borda parera

denbora hori baino lehen heldu beharko du.

**100 ETA 180 EURO BAIETZ**

Hasieran apostura lagun artekoa bazen ere herri guztira zabalduta. Izan ere, Etorren lagunek 100 eta 180 euro jokatu dituzte 45 minutuan bonbona Gure Borda pareraino eraman baietz. Apostura hauek dagoeneko onartu dira.

Goibeko Kultura Elkarteak kiniela kaleratu du. Kinielan euro bat ordainduta, Etor Asentziora zenbat denboran helduko den asmatu behar da.



## Xabier Amuriza eta Mixel Ducau liburutegian

Gaur, gaueko 22:00etan Bizkaiko kopia zaharrak entzuteko aukera izango dugu liburutegian. Izan ere Xabier Amuriza bertsolaria eta Mixel Ducau abeslaria Elgetara hurbilduko dira.

Tapia eta Leturiarekin batera 1.999an argitaratu zuen Xabier Amurizak Bizkaiko kopia zaharrak batzen dituen diskoa. Azken aldian, ordea, Mixel Ducau iparraldeko abeslaria izaten du lagun zuzeneko saioetan.

Kopla zaharrak entzuteko aukera aparta izango da beraz liburutegian. /O.E.

**GOIO SARASUA**  
Igeltserotza lanak  
Tei atiak  
Sukaldeak  
Etxaurreak  
Komunak  
Otzango Behokoa Baserria  
OIKINA  
Tel: 943 86 01 56

**Aperribay, s.l.**  
Marmoldegi  
eta granitoak  
Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21  
**20690 ELGETA**

  
Jesus Mari Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**  
Artekale 3  
Mo: 656783299 Eibar  
Tel: 943 70 07 19  
**KONPONKETAK  
SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**

  
**TAPEM S.A.**  
Trokela eta estanpazioa  
**TROKEL PROGRESIBOETAN  
ESPEZIALDUAK**  
Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 943 76 80 50 / 78 90 31  
Faxa: 943 76 82 43

**Aintzane denda**  
  
**Zugandik gertu,  
behar duzun beste**  
Domingo Iturbe 4, ELGETA  
Tel: 943 768297

ERRETRATUZAHARRA

# Bergarako Ollo-Kale futbol taldea

**O**raingo asteko erretratuan Ollo-Kale futbol taldeko gazteak ikus ditzakezue. Erretratua 1953. urtean ateratakoa da, eta bertan agertzen direnek 18 urte inguru izango zituzten orduan.

Ollo-Kale taldekoak Masterreka ingurukoak ziren, eta Bergaran jokatzeko herriko futbol txapelketa-rako osatu zuten taldea. Xabier Larrionek esan digu hamar bat talde izaten zirela lehen Ipintzako txapelketan, eta jende asko izaten zela koadri- len arteko partiduak ikusten. Itxura denez, 1953. urtean, Acero eta Ollo-Kale taldeen arteko finala jokatu zen, eta Acero taldekoek eskuratu zuten txapelketa. Ollo Kalekoek ere bazuten zer ospatu, eta hortxe ditugu San Antonioko La Parra tabernaren ondoan, pankarta eta guzti. Hauexek agertzen dira argazkian, ezkerretik eskumara:

Zutik: ezezaguna, Jose izeneko nafarra, Kruz Mari Odriozola, Isidro Etxaniz, Jose Aranguren, Joseba



Askasibar eta Xabier Larrion.

Makurtuta: Patxi Azkarate, Antonio Azkarate, Jesus Kalboetxea, Nartxi Begiristain (ia zutik dagoena), Jose Antonio Lazpiur eta Jose Ignacio Imaz.

Argazkia: Xabier Larrion.

**ADI IRAKURLE!**

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

## San Joxepe erretiratuen elkarte

**E**rretiratuen egoitza 1976. urtean zabandu zuten, Boni Laskurain kalean. Aurretik, erretiratuen egoitza -Aitonak elkarte orduan- Seminarioan zegoen. 1976tik hona hainbat aldaketa egin dituzte San Joxepeko egoitzan. 92an, egoitza handitzeko lanak egin zituzten. Besteak beste, bolatoki berria eta igogailua jarri zituzten eta tabernan berrikuntzak egin zituzten.



≈ 1992 San Joxepe elkarte, 1992. urtean. Bolatoki berria egiteko zegoen orduan. 1992ko martxoan egin zituzten berrikuntza lanak.




2002 Gaur egun, San Joxepe elkarteak 1.600 bazkide inguru ditu eta herriko erretiratuen bilgune bilakatu da. Urte osoan egoten da zabalik.

**Zumelaga**  
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



**Manufacturas LARRAÑAGA**  
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitriloak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.



Zure sukaldea.


Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxa: 943 76 70 58

# ARREGI AROZTEGIA




**Sukaldeak**  
Arozlan mekanikoak  
Ateak  
Horma-armairuak

**Tarimak eta Parketak**  
Neoprenozko juntadun  
egurrezko leihoak  
PVCzko leihoak



Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

# GRUPO **RKUZ** 1950-2002



*Arkauz zure etxea da.*



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABAETA



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABAETA

